



**BIGARREN HEZKUNTZAKO ETA
UNIBERTSITATEKO IKASLEEN IKUS-
ENTZUNEZKOEN KONTSUMOA ETA
IKTen ERABILERA**

**2022-2023 IKASTURTEKO
TXOSTEN OROKORRA**



AURKIBIDEA

IKUSIKER	2
1. FITXA TEKNIKOA.....	3
2. SARRERA.....	4
3. EMAITZAK	6
PANELKIDEEN DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK	6
UNIBERTSITATEKO PANELA.....	14
BIGARREN HEZKUNTZAKO PANELA	17
ETXEAN DUTEN EKIPAMENDUA	19
IKUSITAKO AZKEN EDUKIAK	20
INTERNETEN, PLATAFORMETAN ALA SARE SOZIALETAN.....	21
TELEBISTA ARRUNTEAN.....	24
SARE SOZIALAK	27
GEHIEN ERABILI DEN/DIREN SARE SOZIALAK ZEINTZUK DIREN	27
INSTAGRAM.....	29
YOUTUBE	38
YOUTUBEKO SORTZAILEAK	46
TIKTOK	52
TIKTOK EKO SORTZAILEAK	57
TWITTER.....	61
TWITTERREKO SORTZAILEAK	69
STREAMING PLATAFORMAK	71
STREAMING PLATAFORMETAN IKUSITAKO AZKEN EDUKIA.....	80
MUSIKA, IRRATIA ETA PODCASTAK	84
MUSIKA ETA IRRATIA	84
PODCASTAK	89
INFORMAZIOA ETA TELEBISTA	93
SARE SOZIALETATIK INFORMATZEA	95
TELEBISTAKO ALBISTEGIAK	98
TELEBISTARI BURUZKO GALDERAK.....	101
LABURREAN	107

IKUSIKER

Gazteek ikus-entzunezkoak kontsumitzeko eta Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) erabiltzeko ohiturak, moduak eta joerak aztertzen ditu IKUSIKER Ikus-entzunezkoen Behategiak. 2018/2019 ikasturtean sortu zen eta gaur egun NOR Ikerketa Taldeaz gain EITBk, Tabakalerak eta Kulturaren Euskal Behatokiak osatzen dute IKUSIKER Behategia.



UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa (Bizkaia)

+34 747 414 355

ikusiker@ehu.eus



1. FITXA TEKNIKOA

Gazteen ikus-entzunezko kontsumoak eta IKTen erabilerak aztertzeko bi panel iraunkor antolatu dira Euskadiko Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean, lehenak Bigarren Hezkuntzako 11-17 urte bitarteko ikasleak hartzen ditu bere baitan, bigarrenak unibertsitariak (18-23 urtekoak). Guztira, ikerketan parte hartu duten gazteen kopurua 4.065koa da, 1.410 Bigarren Hezkuntzakoak eta 2.655 Unibertsitatekoak.

Bigarren Hezkuntzari dagokionez, Hegoaldeko hamar ikasketa-zentrotako ikasleak biltzen dira panelean, eremu eta ikastetxe motari dagokionez anitzak. 2022-2023 ikasturtean, IKUSIKER Panela osatzen duten hamar ikastetxeak honakoak dira: Araban (2), Gasteizko Mendebaldea BHI eta Egibide ikastetxea; Bizkaian (3), Bilboko Unamuno BHI, Mungiako Larramendi ikastola eta Ondarroako BHI; Gipuzkoan (2) Eskoriatzako Arizmendi ikastola-Almen eta Lasarteko BHI; eta Nafarroan (3) Altsasuko BHI, Sarrigurengo BHI eta Tafallako ikastola. Bigarren Hezkuntzako panelerako landa-lana bi momentutan burutu da, 2022ko udazkenean (urria eta azaroa) eta 2023ko udaberrian (martxo eta apirila), horretarako propio sortutako bi galdera-sorta erabiliz. Ikastetxeetako zuzendaritzekin elkarlanean, haiek zehaztutako datetan UPV/EHUko ikerlariak bertaratu eta gelaz-gela zabaldu dituzte inkestak. Zentroek dituzten baliabide informatikoak erabiliz betetzen dira inkestak.

Bestetik, unibertsitarien panelean bat egiten dute Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) bi mila eta seihun ikasle pasatxok. Laginean lurralde, jakintza-arlo, fakultate eta ikasketa-maila desberdinetako gazteak daude. Landa-lanari dagokionez, ikasturtearen hasieran aurrez aurre ikasgeletan betetzen dute lehen inkesta eta, hortik aurrera, panelean parte hartzeko baiezkoa ematen duten ikasleei Whatsappez bidaltzen zaizkie hurrengoko zazpi galdetegiak, hilean behingo maiztasunarekin.

BHrako eta unibertsitaterako erabiltzen diren galdera-sortak www.encuestafacil.com plataforman diseinatu dira. Landa-lana eta datu baseen kudeaketa egiteko Aztiker Soziologia Ikerlariaren laguntza jasotzen dugu. IKUSIKER Panelari buruzko informazio gehiago eta emaitzetan oinarritutako hainbat txosten aurkitu daitezke www.ikusiker.eus webgunean.

2. SARRERA

Gazteak ikus-entzunezko produktuen kontsumitzaile oparoak dira eta funtzio askotarako erabiltzen dituzte IKTak. Komunikazio-praktika hauen gaineko informazioa eskaintzen da txosten honetan, Bigarren Hezkuntzako eta Unibertsitateko ikasleek erantzun dituzten galdera-sortetatik lortutako emaitzen bidez. Datuak ikasketa-mailaka antolatuta aurkitu daitezke eta horrek aukera ematen du alderaketak egiteko. Izan ere, hainbat kontsumo portaeratan desberdintasunak daude Bigarren Hezkuntzako (11-17 urte) ala Unibertsitateko (18-23 urte) ikasleen artean.

Txostenaren hasierako zatian panela osatzen duten gazteen izaera soziodemografikoa eta eskura dauzkaten IKTen gaineko informazioa kokatzen da. Hortik aurrera bost gai jorratzen dira, 2022/2023 ikasturteko inkestetan jasotako eduki guztiak ordena logiko batean aurkeztuz: (1) ikusitako azken ikus-entzunezkoen inguruko informazioa (plataforma digitaletan eta telebistan); (2) sare sozialen erabilera (Instagram, Youtube, TikTok eta Twitter lantzen dira zehazki), (3) streaming plataformen erabilera; (4) musika, irratia eta Podcastak, (5) eta informazioa eta telebista.

Lehenengo atalean, ikus-entzunezkoen kontsumoa nabarmena denez bigarren hezkuntzako eta Unibertsitateko gazteen artean, horretan fokalizatu ditugu galderak eta jakin ahal izan dugu zeintzuk diren ohikoenak zaizkien plataformak eta aparailuak eta, noiz eta non ikusten dituzten produktu horiek.

Bigarren multzoan, bost sare sozial zenbateraino erabiltzen dituzten, non, noiz eta horien zergatietan sakondu dugu. Eskura dituztenetatik Instagram, Youtube, Twitter eta TikTok aukeratu ditugu, neurri handi batean erabilienak zaizkielako eta, aldi berean, ikus-entzunezko izaera oso indartsua delako sare sozial horietan.

Hirugarren blokean, erabiltzen dituzten streaming plataformei buruzko informazioa aurkezten da: eskura dituzten plataforma digitalak eta erabilera maiztasuna, streaming plataformetako hizkuntza ohiturak, plataforma bakoitza erabiltzeko arrazoi nagusiak, beren balorazio orokorra, eta plataforma digital, video on demand edo ordainpeko eta doaneko plataformetan ikusitako azken edukiaren inguruko informazioa.

Laugarren atalean, musika, irratia eta Podcasten kontsumoari buruzko informazio biltzen da: musika non entzuten den gehienbat, zein genero eta zein bidetatik; eta Podcasten kontsumo-ohiturak eta balorazioak.

Azken atalean, informatzeko ohiturari buruzko datuak aurkezten dira, zein bide diren erabilienak, sare sozialen erabilera eta hauen formatua informatzeko, telebistako albistegien kontsumoa, eta orokorrean telebistaren erabilera edo kontsumoa.

Txostenaren azken orrietan, datu nagusien aurkezpen labur bat egiten da.

3. EMAITZAK

PANELKIDEEN DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK


Aurreko ikasturteen antzera, izen emateen artean, emakumezkoenak gehiago izan dira gizonezkoenak baino. Hala, lehenak % 57,7 izan dira osotara, eta gizonezkoak % 41,4 dira. Beren burua ez-binario bezala identifikatzen dutenak % 0,9 izan dira. Generoen arteko alde hori adinarekin are handiagoa da. Izan ere, Unibertsitateko ikasleen kasuan, emakumezkoak % 60,8 eta gizonezkoak % 38,5 dira; alde hori Bigarren Hezkuntzako (BH) ikasleen kasuan apaldu egiten da, emakumeak % 52,0 eta gizonak % 46,9 baitira. Ez binarioak % 1aren bueltan ibili dira ikasturte bakoitzeko.

1. Irudia -Sexua

Sexua

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Emakumezkoa	57,7	52,0	60,8
Gizonezkoa	41,4	46,9	38,5
Ez binarioa	0,9	1,1	0,8
Guztira (n eta %)	100,0 4.065	100,0 1.410	100,0 2.655

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



Panelkideen adinari dagokionez, ikasleen hamarretik zazpi gutxienez 18 urte bete ditu edo beteko ditu aurten (% 71,2), bertan sartzen dira Unibertsitateko ikasleak eta baita Lanbide Heziketako batzuk ere. Panelkideen beste hamarretik hiru 13 eta 17 urte artean dago (% 28,8). Aipatu bezala, adina erabat lotuta dago ikasketa-mailaren aldagaiarekin.

2. Irudia -Jaioturtea


Jaioturtea

	Guztira	BH	Unibertsitatea
2010	5,8	16,7	0,0
2009	6,3	18,1	0,0
2008	6,0	17,2	0,0
2007	5,9	17,1	0,0
2006	4,8	13,9	0,0
2005	5,9	17,0*	0,0
2004	26,9	0,0	41,1*
2003	16,9	0,0	25,9
2002	11,5	0,0	17,7
2001	10,0	0,0	15,3
Guztira (n eta %)	100,0 4.065	100,0 1.410	100,0 2.655
Batezbestekoa	2005	2007	2003

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra

*Oharra: 2005 edo lehenago

**Oharra: 2004 edo beranduago.




Guztira panelkideen herena baino gehiago bizkaitarra da (% 37,1) eta beste laurden bat gipuzkoarra (% 24,1). Nafarrak, aldiz, panelkideen % 21,9 dira, eta arabarrak % 14,0. Azkenik, beste lurraldeetakoak % 2,9 dira. Unibertsitateko ikasleen kasuan bizkaitarrek eta gipuzkoarrek pisu handiagoa hartzen dute eta, aldiz, Bigarren Hezkuntzako ikasleen kasuan, nafar eta arabarrak dira gehiengoak.

3. Irudia - Bizilekua

Bizilekua

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Araba	14,0	21,8	9,8
Gipuzkoa	24,1	16,5	28,2
Bizkaia	37,1	27,9	41,9
Nafarroa	21,9	32,6	16,3
Beste	2,9	1,3	3,8
Guztira (n eta %)	100,0 4.065	100,0 1.410	100,0 2.655

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Gurasoen jaiolekuari dagokionean, bi gurasoak Euskal Herrian jaiotakoak dituzten ikasleak dira gehienagoa (% 68,7). Bestetik, guraso bakarra Euskal Herrian jaiotakoa duten ikasleak % 17,6 dira eta bi gurasoak Euskal Herritik kanpokoak dituztenak % 13,7. Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean ehuneko handiagoa dago bi gurasoak Euskal Herritik kanpo jaiotakoak dituzten ikasleena.

4. Irudia - Gurasoen jaiolekua

Gurasoen jaiolekua

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Bi gurasoak Euskal Herrian jaiotak	68,7	60,5	73,1
Gurasoetako bat Euskal Herrian jaiotak	17,6	18,1	17,3
Bi gurasoak Euskal Herritik kanpo jaiotak	13,7	21,4	9,6
Guztira (n eta %)	100,0 4.060	100,0 1.407	100,0 2.653

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Ikasleen lehen hizkuntzari dagokionez, panelkideen ia laurdenak euskara izan du bere lehen hizkuntza (% 23,7) eta gaztelania beste % 54,8k. Gaztelania eta euskara, biak jaso dituzten ikasleak % 16,2 dira eta beste hizkuntzaren bat jaso dutenak % 5,0.

5. Irudia - Lehen hizkuntza

Lehen hizkuntza

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Euskara	23,7	21,6	24,8
Gaztelania	54,8	51,6	56,5
Frantsesa	0,1	0,2	0,0
Euskara + Gaztelania	16,2	17,4	15,6
Euskara + Frantsesa	0,0	0,1	0,0
Gaztelania + Frantsesa	0,1	0,1	0,1
Besteren bat	5,0	8,9	3,0
Guztira (n eta %)	100,0	100,0	100,0
	4.065	1.410	2.655

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Panelkideen gehiengo zabalak (% 82,8) euskaraz hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko gaitasuna du. % 7,9 ulertzeko gai da, eta beste % 9,3k ez du ulertu ere egiten. Unibertsitateko ikasleen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen arteko alderaketa egiten bada, euskararen ezagutza Bigarren Hezkuntzan handiagoa da Unibertsitatean baino. Nahiz eta euskaraz hitz egin, irakurri eta idazteko gaitasuna oso antzekoa izan, aldea nabarmenagoa da ulertu ere egiten ez dutenen artean, Unibertsitatean % 10,5 izanik eta Bigarren Hezkuntzan % 7,2.

6. Irudia - Euskara ezagutza

Euskara ezagutza

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Hitz egin, irakurri eta idazten dut	78,9	77,9	79,4
Hitz egin eta irakurtzen dut	1,7	1,8	1,7
Hitz egiten dut	2,2	3,1	1,7
Ulertzen dut	7,9	9,9	6,8
Ez dut ulertzen	9,3	7,2	10,5
Guztira (n eta %)	100,0 4.065	100,0 1.410	100,0 2.655

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Euskararen erabileraren kasuan, aldiz, Unibertsitateko ikasleen artean handiagoa da. Unibertsitatean beti euskaraz aritzen direnak % 6,5 dira, eta Bigarren Hezkuntzan % 5,7. Hala, bi panelak kontuan hartuta, beti euskaraz hitz egiten dutenak % 6,2 dira. Era berean, panelkide guztien artean euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dutenak % 8,0 dira. Beste aldean, beti erdaraz egiten dutenak ia herena dira (% 29,5). Kasu honetan, Unibertsitateko ikasleen ehunekoa Bigarren Hezkuntzakoena baino altuagoa da: % 31,8 eta % 25,2 baitira hurrenez hurren.

7. Irudia - Euskara erabilera

Euskara erabilera

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Beti euskaraz	6,2	5,7	6,5
Euskaraz erdaraz baino gehiago	8,0	7,1	8,5
Euskaraz erdaraz beste	10,8	11,6	10,4
Erdaraz euskaraz baino gehiago	45,4	50,4	42,8
Beti erdaraz	29,5	25,2	31,8
Guztira (n eta %)	100,0 4.065	100,0 1.410	100,0 2.655

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Euskara ezagutza eta erabileraren aldagaiak gurutzatuta, sei profiletan banatu dira panelkideak. Beti euskaraz hitz egiten dutenak % 6,2 dira eta euskaraz erdaraz baino gehiago hitz egiten dutenak % 7,9. Bi profil hauetan ehunekoak altuagoa da Unibertsitateko ikasleen artean. Bestetik, euskaraz erdaraz beste hitz egiten duten elebidunak % 10,8 dira inkestaturen artean. Talderik handiena gaztelania euskara baino gehiago erabiltzen dutenetan kokatzen da: % 43,5 guztira, % 47,2 Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean eta % 41,6 Unibertsitatekoen artean. Beti erdaraz egiten duten elebidunak % 14,3 dira (gehiago Unibertsitatekoen artean) eta, azkenik, erdaldun eta elebidun hartzaileak % 17,2.

8. Irudia - Euskara ezagutza eta erabilera

Euskara ezagutza eta erabilera

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Elebiduna, beti euskaraz	6,2	5,7	6,5
Elebiduna, euskaraz erdaraz baino gehiago	7,9	6,9	8,4
Elebiduna, bietan berdin	10,8	11,6	10,4
Elebiduna, erdaraz euskaraz baino gehiago	43,5	47,2	41,6
Elebiduna, beti erdaraz	14,3	11,5	15,9
Erdalduna edo elebidun hartzailea	17,2	17,2	17,3
Guztira (n eta %)	100,0	100,0	100,0
	3.336	1.410	2.655

Iturria: Ikusiker, Applika



UNIBERTSITATEKO PANELA


Unibertsitateko ikasleen artean gehiago zabala EHUko ikaslea da (% 84,7). Beste % 15,2 da Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikaslea.

9. Irudia -Unibertsitatea

Unibertsitatea

	Ehunekoa (%)
UPV/EHU	84,7
UPNA	15,2
Guztira (n eta %)	100,0
	2.646

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Unibertsitateko ikasleak diren panelkideen artean erdia baino gehiago (% 56,1) lehenengo mailakoak dira, % 23,1 bigarren mailakoak eta % 20,8 hirugarren eta laugarren mailakoak.

10. Irudia -Maila (Unibertsitatea)

Maila (Unibertsitatea)

	Guztira
1. maila	56,1
2. maila	23,1
3. maila	15,7
4. maila	5,1
Guztira (n eta %)	100,0
	2.654

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Unibertsitateko panelkideen % 22,2aren ikasketa eremua Teknologia eta Ingeniaritzak dira; % 17,6rena Magisteritza; % 15,0rena Ikusentzunezko Komunikazioa, Kazetaritza, Publizitatea, Harreman Publikoak; % 14,4 Giza eta Gizarte Zientziak; eta % 11,8 Natur Zientziak. Ondoren datoz Ekonomia eta Enpresen Kudeaketa (% 10,1) eta Osasunaren Zientziak (% 8,9).

11. Irudia -Ikasketa eremua

Ikasketa-eremua

	Guztira
Teknologia eta ingeniartzak	22,2
Magisteritza	17,6
Ikusentzunezko Komunikazioa, Kazetaritza, Publizitatea, Harreman Publikoak	15,0
Giza eta gizarte zientziak	14,4
Natur Zientziak	11,8
Ekonomia eta enpresen kudeaketa	10,1
Osasunaren zientziak	8,9
Guztira (n eta %)	100,0
	2.646

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Unibertsitateko panelkideen gehiengoa ikasturte honetan hasi da panelean parte hartzen; hots % 68,8k 2022/2023 ikasturtean eman du izena. % 20,5ek aurreko ikasturtean eman zuen izena eta 2020/2021koa edo lehenagokoa da % 10,7.

12. Irudia -Kontaktuaren jatorria

Kontaktuaren jatorria

	Guztira
2018/2019	0,6
2019/2020	2,2
2020/2021	8,0
2021/2022	20,5
2022/2023	68,8
Guztira (n eta %)	100,0
	2.640

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Unibertsitateko panelkideen erdiak ikerketa honetarako WhatsAppk euskaraz jasotzea hautatu du (% 49,2) eta beste erdiak gaztelania z jasotzea lehenetsi du (% 50,8).

13. Irudia -Komunikazio hizkuntza

Komunikazio-hizkuntza

	Guztira
Euskara	49,2
Gaztelania	50,8
Guztira (n eta %)	100,0
	2.654

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



BIGARREN HEZKUNTZAKO PANELA


Bigarren Hezkuntzako panelkideak hamar institututakoak dira. Ikasleen pisua handienetik txikienera ordenatuta, horrela geratzen da zerrenda (taula eta grafikoan ikusten den moduan): Bilboko Institutu Zentrala, Gasteizko Egibide ikastetxea, Altsasuko institutua, Sarrigurengo institutua, Almen- Eskoriatzako Arizmendi ikastola, Gasteizko Mendebaldea, Mungiako Larramendi ikastola, Lasarteko institutua, Tafallako ikastola eta Ondarroako institutua.

14. Irudia -Ikastetxea

Ikastetxea

	Guztira
Bilboko Institutu Zentrala	15,6
Gasteizko Egibide ikastetxea	14,3
Altsasuko institutua	13,8
Sarrigurengo institutua	12,6
Almen- Eskoriatzako Arizmendi ikastola	8,7
Gasteizko Mendebaldea	8,1
Mungiako Larramendi ikastola	7,3
Lasarteko institutua	7,2
Tafallako ikastola	6,7
Ondarroako institutua	5,6
Guztira (n eta %)	100,0
	1.410

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Bigarren Hezkuntzako ikasle panelkideen kasuan ia hiru laurdena DBHko lau ikasturteetan banatzen da (% 72,3). Bestetik, ikasleen hamarretik bi Batxilergoan dago (% 21,3) eta, bukatzeko, % 6,3 Lanbide Heziketa ikasten ari da.

15. Irudia -Ikasmaita (BH)

Ikasmaita (BH)

	Guztira
DBH 1	18,3
DBH 2	19,8
DBH 3	17,2
DBH 4	17,1
Batxilergoa 1	12,1
Batxilergoa 2	9,2
Lanbide Heziketa 1	3,6
Lanbide Heziketa 2	2,7
Guztira (n eta %)	100,0
	1.410

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



ETXEAN DUTEN EKIPAMENDUA


Oro har, panelkide ia guztiek (% 98,0) etxean duten ekipamenduaren artean telefono mugikorra dagoela aipatu dute. % 91,8k ordenagailu eramangarria ere badu, eta % 83,7k Internetera konektatutako telebista. Tableta eta bideo-kontsolari dagokienez, erdiek baino gehiagok dituzte (% 58,8k eta % 57,5ek hurrenez hurren). Azkenik, % 45,6k eta % 36,8k hurrenez hurren mahaiko ordenagailua eta telebista arrunta duela azaldu du

16. Irudia -Etxean duten ekipamendua (aukera anitza)

Etxean duten ekipamendua (aukera anitza)

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Telefono mugikorra	98,0	95,7	99,2
Ordenagailu eramangarria	91,8	83,3	96,2
Internetera konektatutako telebista (Smart TV)	83,7	85,3	82,9
Tableta	58,8	61,6	57,3
Bideo-kontsola	57,5	62,4	54,8
Mahaiko ordenagailua	45,6	47,5	44,6
Telebista arrunta (ez dago Internetera konektatuta)	36,8	29,3	40,8
Beste	2,9	4,3	2,2
Guztira (n eta %)	100,0 4.065	100,0 1.410	100,0 2.655

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



IKUSITAKO AZKEN EDUKIAK

2022/2023 ikasturtean egindako inkestetan, lehenengo atal bat errepikatu egin da aldiro. Bertan, ikusitako azken ikus-entzunezko edukien inguruko galdera batzuk egin dira, streaming plataformen kasuan batetik eta telebista bidez ikusitakoak bestetik. Txostenaren zati honetan streaming bidez eta telebista tradizionaletik ikusitako azken edukiei erreparatuko zaie, non ikusi diren, zein plataforma / kanaletan eta zein hizkuntzetan.

Azterketa unitateak aldatu egiten dira zati honetan. Beste atal guztietan inkestak erantzun dituzten pertsonak ditugu erreferentziatzat, baina atal honetan inkesta bakoitzeko jasotako ikus-entzunezkoak bildu dira datu-base batean eta azterketa-unitate moduan ikus-entzunezkoak beraiek erabili dira. Guztira, Internet, plataforma digital ala sare sozialetan ikusitako 15.798 eduki aztertu dira eta telebistan ikusitako 15.351 eduki.

Panelei dagokienez, Unibertsitateko ikasleen kasuan, eduki gehiagoren inguruko informazioa bildu da Bigarren Hezkuntzako ikasleen kasuan baino. Horren arrazoia da Unibertsitateko ikasleei zortzi aldiz egin zaizkiela galdera hauek, eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei, aldiz, bi inkestetan. Beraz, maiztasunak baxuagoak dira bigarren hauen kasuan

INTERNETEN, PLATAFORMETAN ALA SARE SOZIALETAN


Interneten, plataforma digitaletan ala sare sozialetan ikusitako ikus entzunezkoen % 79,3 etxean ikusi da. Gainontzeko lekuak oso gutxi aipatuak izan dira, denak % 8,1 eta % 0,5 artean.

17. Irudia - Zein lekutan ikusi zenuen?

Zein lekutan ikusi zenuen?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Etxean	79,3	75,6	80,4
Unibertsitatean / Ikastetxean	8,1	11,6	7,2
Garraio publikoan	5,9	5,9	5,9
Kalean	4,2	4,8	4,0
Tabernan / Kafetegian	0,5	0,4	0,5
Beste batean	2,0	1,6	2,0
Guztira (n eta %)	100,0 15.798	100,0 3.424	100,0 12.374

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Erabilitako plataformei dagokienez, bi dira nagusi: Youtube eta Instagram. Ikus entzunezkoen % 28,7 Youtuben ikusi da eta % 23,6 Instagramen. Netflixen eta TikToken, aldiz, ikus entzunezkoen % 14,6 eta % 9,3 ikusi dira. Gainontzeko plataformetan ikus entzunezkoen % 4 edo gutxiago ikusi da, eta, bukatzeko, % 7,7 zerrendan aipatu ez diren beste plataforma batzuetan ikusi da.

18. Irudia - Zein plataformetan ikusi zenuen?

Zein plataformetan ikusi zenuen?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Youtube	28,7	27,3	29,1
Instagram	23,6	22,2	24,0
Netflix	14,6	15,4	14,3
TikTok	9,3	11,7	8,6
Google	4,6	5,2	4,4
Amazon Prime	2,8	3,1	2,7
Twitch	2,4	1,9	2,6
Twitter	2,3	1,9	2,4
Nahieran (A la carta zerbitzuren bat)	2,0	0,9	2,3
HBO	1,9	1,5	2,0
Facebook	0,1	0,1	0,1
Snapchat	0,1	0,2	0,1
Filmin	0,1	0,1	0,1
Beste batean	7,7	8,6	7,5
Guztira (n eta %)	100,0 15.809	100,0 3.424	100,0 12.374

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Ikusitako azken ikus entzunezkoen % 72,6 gaztelaniaz kontsumitu dira eta % 19,8 ingelesez. % 4,3 euskaraz izan da. Bestetik, gaztelania, ingelesa, euskara eta frantsesa ez diren beste hizkuntzen baturaren ehunekoak % 3,1ekoa izan da. Bigarren Hezkuntzako eta Unibertsitateko ikasleen ehunekoak oso antzekoak izan dira baina plataformari dagokionez eta baita hizkuntzari dagokionez ere.

19. Irudia - Aipatzen ari zaren bideo ala eduki hori zein hizkuntzatan ikusi zenuen?

Aipatzen ari zaren bideo ala eduki hori zein hizkuntzatan ikusi zenuen?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Gaztelania	72,6	73,6	72,3
Ingelesa	19,8	18,0	20,3
Euskara	4,3	4,1	4,4
Frantsesa	0,2	0,2	0,2
Beste bat	3,1	4,0	2,8
Guztira (n eta %)	100,0 15.765	100,0 3.413	100,0 12.352

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



TELEBISTA ARRUNTEAN


Azken ikus entzunezkoa telebista arruntean ikusi den kasuetan, % 95,6ren kasuan etxeko telebistan izan da. Tabernan, kalean, garraio publikoan, Unibertsitatean edo ikastetxean edo beste lekuren batean ikusi diren ikus entzunezkoak ez dira kasuen % 5era heltzen guztiak elkartuta ere.

20. Irudia - Zein lekutan ikusi zenuen?

Zein lekutan ikusi zenuen?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Etxean (zure etxean ala beste batenean)	95,6	95,5	95,7
Unibertsitatean/Ikastetxean	0,8	1,5	0,7
Kalean	0,7	0,7	0,7
Garraio publikoan	0,4	0,3	0,4
Tabernan/Kafetegian	0,7	0,3	0,8
Beste batean	1,7	1,6	1,7
Guztira (n eta %)	100,0 15.361	100,0 3.318	100,0 12.043

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Azken ikus entzunezkoa telebista arruntean ikusi dutenen artean, laurden batek galdetegiko zerrendan aukera moduan agertu ez den beste kanal batean ikusi duela adierazi du (% 25,2). Inkestako erantzun aukeretan sartu direnen artean, ikus entzunezkoen % 15,2 TVE1-en ikusi da, % 13,0 ETB2-n eta % 2,0 Tele5-n. Bosgarren postuan geratu da ETB1 % 8,4rekin. Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean, “beste kate bat” aukeratu dutenen ehunekoa altuagoa izan da (% 31,9) Unibertsitatekoen artean erantzun dena baino (% 23,3). Hau da, gazteenek kontsumitu dituzten ikus entzunezkoak ‘ohikoenak’ ez diren kanaletan ikusi dira gehiago. Unibertsitateko ikasleen artean bereziki altuagoak dira ETB2 (% 14,7), Tele5 (% 12,7) edota Antena3 (% 9,1).

21. Irudia - Zein telebista kanaletan ikusi zenuen?

Zein telebista kanaletan ikusi zenuen?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
LA1	15,2	20,3	13,8
ETB2	13,0	7,0	14,7
TELE5	12,0	9,6	12,7
ANTENA3	8,7	7,2	9,1
ETB1	8,4	7,1	8,8
FDF	6,2	7,5	5,8
CUATRO	4,0	3,4	4,1
LASEXTA	3,0	2,4	3,1
#0	1,5	1,2	1,6
DIVINITY	1,4	1,3	1,4
LA2	0,7	0,5	0,8
ETB3	0,7	0,6	0,7
Beste bat	25,2	31,9	23,3
Guztira (n eta %)	100,0 15.311	100,0 3.308	100,0 12.003

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Ikusi den azken ikus entzunezkoa telebista arruntean izan den kasuetan, euskarazko kontsumoa bestelako plataformetan baino handiagoa izan da (% 7,9), zertxobait altuagoa Unibertsitateko ikasleen artean. Hala ere, telebista arruntean ere ikus entzunezkoak kontsumitzeko hizkuntzarik ohikoena gaztelania da (% 88,4). Kasu honetan, Bigarren Hezkuntzako eta Unibertsitateko ikasleek kontsumitutako ikus entzunezkoen hizkuntzen artean ez dago alde nabarmenik.

22. Irudia - Aipatzen ari zaren programa ala eduki hori zein hizkuntzatan ikusi zenuen?

Aipatzen ari zaren programa ala eduki hori zein hizkuntzatan ikusi zenuen?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Gaztelania	88,4	88,7	88,3
Euskara	7,9	6,7	8,2
Ingelesa	2,1	2,3	2,0
Frantsesa	0,2	0,3	0,2
Beste bat	1,4	2,0	1,2
Guztira (n eta %)	100,0 15.361	100,0 3.318	100,0 12.043

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



SARE SOZIALAK

GEHIEN ERABILI DEN/DIREN SARE SOZIALAK ZEINTZUK DIREN

Galdera honetan, gehien erabiltzen diren hiru sare sozialengatik galdetu da. Ezkerreko zutabeen lehenengo, bigarren edo hirugarren aukera gisa hartu diren guztiak aintzat hartu dira, hau da, hiru aukeren batuketa egin da. Hurrengo hiru zutabeetan aldiz, lehenengoan soilik lehenengo aukera gisa hautatuak izan direnak, bigarreanean bigarren aukera gisa eta azkenengoan soilik hirugarren aukera gisa hautatuak izan direnak. Hala, lehenengo zutabeari erreparatuz (batuketari), panelkide guztien artean sare sozial erabilienak WhatsApp (% 82,8), Instagram (% 81,4), TikTok (% 62,5) eta Youtube (% 43,7) dira. Unibertsitateko ikasleen artean erabilienak WhatsApp (% 87,9) eta Instagram (% 86,0) diren bitartean, Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean WhatsApp (% 75,2), TikTok (% 74,9) eta Instagram (% 74,6) dira. TikTok da bereziki igotzen dena gazteenen artean.


Hala ere, lehenengo aukera modura hautatuena WhatsApp izan da ikasleen heren baten artean (% 34,4). Horren atzetik WhatsApp (% 26,9) eta ondoren TikTok (% 22,9) izan dira hautatuenak. Bigarren Hezkuntzako ikasleen kasuan Instagram aukeratuena izan den arren (% 33,8), TikTokek Unibertsitateko ikasleen artean baino arrakasta askoz handiagoa duela beha daiteke. Izan ere, BHkoen % 30,0k hautatu du plataforma hori lehenengo aukera moduan; eta Unibertsitateko ikasleen artean % 18,1ek hautatu du. Unibertsitateko ikasleen artean, aldiz, arrakastatsuen Instagram da, % 34,7k lehen aukera modura hartu baitu, eta ondoren WhatsApp (% 32,8)

23. Irudia - Aukeratu zuk gehien erabiltzen dituzun sare sozialak. Hiru aukera

Aukeratu zuk gehien erabiltzen dituzun sare sozialak. Hiru aukera.

	Guztira, zenbat panelistek aukeratua (bat, bi edo hirugarren lekuan)			Lehenengo aukera			Bigarren aukera			Hirugarren aukera		
	Guztira	BH	Unibertsitatea	Guztira	BH	Unibertsitatea	Guztira	BH	Unibertsitatea	Guztira	BH	Unibertsitatea
Whatsapp	82,8	75,2	87,9	26,9	18,2	32,8	28,7	23,8	32,0	27,2	33,3	23,1
Instagram	81,4	74,6	86,0	34,4	33,8	34,7	29,9	25,5	32,9	17,2	15,3	18,4
TikTok	62,5	74,9	54,1	22,9	30,0	18,1	21,4	30,7	15,3	18,1	14,2	20,7
Youtube	43,7	46,4	41,9	10,9	13,8	9,0	12,3	12,6	12,1	20,5	20,1	20,8
Twitter	13,3	5,3	18,7	3,0	1,1	4,3	3,4	1,3	4,8	6,9	2,9	9,6
Twitch	4,7	6,2	3,6	0,6	0,7	0,5	1,6	2,1	1,2	2,5	3,3	1,9
Snapchat	3,1	5,3	1,6	0,1	0,2	0,0	0,7	1,3	0,3	2,3	3,8	1,3
Telegram	1,2	1,4	1,1	0,2	0,2	0,1	0,3	0,1	0,3	0,8	1,0	0,7
Facebook	1,1	1,1	1,1	0,1	0,1	0,2	0,2	0,4	0,1	0,7	0,7	0,8
Besteren bat	6,3	9,7	4,0	0,9	1,9	0,3	1,6	2,4	1,1	3,8	5,5	2,6
Oinarria (n eta %)	100,0 2.572	100,0 1.141	100,0 1.431	100,0 3.504	100,0 1.405	100,0 2.099	100,0 3.499	100,0 1.402	100,0 2.097	100,0 3.468	100,0 1.380	100,0 2.088

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



INSTAGRAM


Panelkideen artean gehiengo zabal batek Instagram erabiltzen duela aipatu du (% 84,2). Kopuru hori altuagoa da Unibertsitateko ikasleen artean (% 89,5) Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean baino (% 76,5).

24. Irudia - Instagramen kasuan, esan mesedez, ea erabiltzen duzun sare sozial hori

Instagramen kasuan, esan mesedez, ea erabiltzen duzun sare sozial hori:

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Ez daukat konturik Instagramen.	8,0	14,8	3,4
Kontua badaukat baina ez dut erabiltzen.	7,7	8,7	7,1
Bai, erabiltzen dut Instagram.	84,2	76,5	89,5
Guztira (n eta %)	100,0 3.511	100,0 1.410	100,0 2.101

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Instagram aplikazioak dituen aukerak zein maiztasunekin erabiltzen dituzten galdetu zaie aplikazioa erabiltzen duten panelistei. Aplikazioak eskaintzen duen aukerarik erabiliena Story-a da, % 33,9k askotan erabiltzen baitu. Erabiliena da bai BHkoen artean (% 36,6) baita Unibertsitateko ikasleen artean ere (% 32,4). Hurrengo erabilienak Feedak edo Postak badira ere (% 7,8k askotan erabiltzen du) alde nabarmena dago Storyen erabilerarekin alderatzen badugu. Bestetik, hirugarren aukera erabiliena Reela da eta laugarren eta bosgarren postuan daude Liveak eta Instagram TV.

25. Irudia - Instagrameko aukera bakoitza zein maiztasunekin erabiltzen den

Instagrameko aukera bakoitza zein maiztasunekin erabiltzen den

		Inoiz ez	Gutxitan	Batzuetan	Askotan	Guztira (n eta %)	
Story-ak	Guztira	4,7	25,5	35,9	33,9	100,0	2.921
	BH	6,2	24,8	32,5	36,6	100,0	1056
	Unibertsitatea	3,9	25,8	37,9	32,4	100,0	1.865
Feed-ak (Post-ak)	Guztira	38,0	36,0	18,2	7,8	100,0	2.898
	BH	43,8	30,2	15,9	10,1	100,0	1041
	Unibertsitatea	34,7	39,3	19,4	6,6	100,0	1.857
Reel-ak	Guztira	54,7	20,8	14,2	10,3	100,0	2.893
	BH	48,9	22,7	16,6	11,8	100,0	1038
	Unibertsitatea	58,0	19,7	12,9	9,5	100,0	1.855
Live (zuzenekoak)	Guztira	70,4	21,3	6,4	1,9	100,0	2.887
	BH	48,7	30,7	15,8	4,8	100,0	1033
	Unibertsitatea	82,5	16,1	1,1	0,3	100,0	1.854
Instagram TV	Guztira	83,6	12,0	3,1	1,3	100,0	2.894
	BH	80,5	12,7	4,1	2,6	100,0	1038
	Unibertsitatea	85,3	11,5	2,5	0,6	100,0	1.856

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Instagramen zertarako erabiltzen den ere galdetu da; eta gehiengoak denbora pasarako dela adierazi du (% 62,7k askotan erabiltzen du denbora pasarako), bai BHko (% 49,2) eta baita Unibertsitateko (% 70,3) ikasleen artean. Hurrengo funtzio aipatuena “gauza entretenigarriak eta barregarriak ikusteko” izan da (% 53,3k askotan). Hirugarren erabilera hautatuena “lagunekin eta ezagunekin harremanetan egoteko” izan da (% 46,5). Eta laugarren postuan geratu da ‘nire lagunekin hor gelditzen naizelako’, erabilera altuagoa Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean, Unibertsitatekoan artean baino (% 41,2 eta % 31,1 hurrenez hurren).

26. Irudia - Instagram zertarako erabiltzen den

Instagram zertarako erabiltzen den

		Inoiz ez	Gutxitan	Batzuetan	Askotan	Guztira (n eta %)	
Denbora pasarako	Guztira	3,3	7,9	26,1	62,7	100,0	2.914
	BH	8,0	13,7	29,2	49,2	100,0	1053
	Unibertsitatea	0,6	4,7	24,4	70,3	100,0	1.861
Gauza entretenigarriak eta barregarriak ikusteko	Guztira	2,1	9,9	34,6	53,3	100,0	2.920
	BH	4,3	14,5	37,3	43,9	100,0	1056
	Unibertsitatea	0,9	7,3	33,1	58,6	100,0	1.864
Lagunekin eta ezagunekin harremanetan egoteko	Guztira	4,6	13,4	35,4	46,5	100,0	2.908
	BH	8,1	15,9	27,5	48,5	100,0	1048
	Unibertsitatea	2,6	12,0	39,9	45,4	100,0	1.860
Informatuta egoteko	Guztira	13,2	27,1	40,9	18,8	100,0	2.916
	BH	18,1	26,5	35,3	20,1	100,0	1056
	Unibertsitatea	10,5	27,4	44,1	18,0	100,0	1.860
Bideoak eta argazkiak partekatzeko	Guztira	16,2	39,5	31,0	13,3	100,0	2.917
	BH	22,6	33,4	28,6	15,4	100,0	1058
	Unibertsitatea	12,6	43,0	32,3	12,1	100,0	1.859
Kotileoan ibiltzeko	Guztira	13,8	22,0	30,2	34,0	100,0	2.914
	BH	17,7	22,7	24,8	34,8	100,0	1054
	Unibertsitatea	11,6	21,6	33,2	33,5	100,0	1.860
Nire lagunekin hor elkartzen naizelako	Guztira	11,3	22,3	31,7	34,7	100,0	2.917
	BH	13,5	19,1	26,3	41,2	100,0	1059
	Unibertsitatea	10,0	24,2	34,8	31,1	100,0	1.858
Egiten ditudan gauzak erakusteko	Guztira	26,7	40,6	25,1	7,5	100,0	2.917
	BH	32,1	38,2	21,9	7,9	100,0	1057
	Unibertsitatea	23,7	41,9	27,0	7,4	100,0	1.860
Ligatzeko	Guztira	49,8	30,3	15,8	4,1	100,0	2.913
	BH	50,0	24,7	17,4	7,9	100,0	1053
	Unibertsitatea	49,6	33,5	14,9	2,0	100,0	1.860
Ikasteko ala lanerako	Guztira	57,8	31,5	8,8	2,0	100,0	2.910
	BH	67,1	24,5	6,3	2,2	100,0	1054
	Unibertsitatea	52,5	35,5	10,2	1,9	100,0	1.856
Gauzak erosteko	Guztira	81,0	13,1	4,7	1,2	100,0	2.914
	BH	79,2	12,7	6,3	1,8	100,0	1054
	Unibertsitatea	81,9	13,3	3,9	0,9	100,0	1.860

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Panelkideen erdiak baino gehiagok dio Instagramen gehien jarraitzen duen perfil mota bere lagunen perfilak direla (% 51,5). Perfil hau ohikoagoa da Unibertsitateko ikasleen artean (% 53,2) Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean baino (% 48,5). Kirolari lotutako profilei dagokienez, panelkideen % 19,1ek jarraitzen ditu; BHkoen kasuan % 24,8 eta % 15,9 Unibertsitatekoen kasuan. Hurrengo jarraituenak modako kontuak, musikari lotutakoak edota ‘celebrity’-ak; % 7,6; % 6,2 eta % 5,3 izanik hurrenez hurren.

27. Irudia - Markatu zuk gehien erabiltzen duzun perfil mota

Markatu zuk gehien jarraitzen duzun perfil mota:

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Zure lagunen perfilak	51,5	48,5	53,2
Kirola	19,1	24,8	15,9
Moda	7,6	5,3	9,0
Musika	6,2	7,3	5,6
Celebrity-ak	5,3	4,4	5,7
Argazkilariak, zinea, kultura	4,6	3,1	5,5
Gamerrak	3,9	4,9	3,4
Makilajea	1,1	1,2	1,1
Politikoak	0,6	0,5	0,6
Guztira (n eta %)	100,0 2.922	100,0 1.060	100,0 1.862

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Panelkideen % 44,3k dio Instagramen pasatzen duen denbora ez lukeela handitu edo txikituko, hau da, denbora berdintsua pasako luke aplikazioan. Denborarekin asebeteta daudenak bereziki BHko ikasleak dira (% 61,0), eta ez horrenbeste Unibertsitatekoak (% 34,8). Bestalde, inkestatuen % 31,3k ahal izanez gero denbora apur bat gutxiago pasako luke eta % 18,5ek askoz denbora gutxiago pasako luke. Aplikazioari denbora gutxiago eskaini nahiko lioketenak, batez ere, Unibertsitateko ikasleak dira (% 62,4k denbora apur bat gutxiago edo askoz gutxiago pasa nahiko luke). BHko ikasleen artean ehuneko hori % 27,6n kokatzen da.

28. Irudia - Posible bazenu, Instagramen denbora...

Posible bazenu, Instagramen denbora...

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Askoz gehiago pasako nuke	2,4	4,5	1,1
Apur bat gehiago pasako nuke	3,6	6,9	1,7
Berdintsua pasako nuke.	44,3	61,0	34,8
Apur bat gutxiago pasako nuke	31,3	19,6	37,9
Askoz denbora gutxiago pasako nuke	18,5	7,9	24,5
Guztira (n eta %)	100,0 2.927	100,0 1.059	100,0 1.868

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



Hurrengo taulak zein grafikoetan erakusten da panelistei aurkeztu zaizkien Instagrami buruzko esaldi batzuekin agertu duten adostasun maila. Lehen esaldiari dagokionez, panelkideen % 62,3 “Instagramen postureo gehiegi dago” esaldiarekin guztiz ados azaldu da. Iritzi honekin bat egiten duten ikasleak, batez ere Unibertsitateko ikasleak dira; % 71,1 guztiz ados agertu baita. Bigarren Hezkuntzako artean, berriz, % 46,8. Hala ere, edozein kasutan gehiengo zabala ados edo guztiz ados dago esaldiarekin: guztira % 86,5; BHko ikasleen artean % 73,4 eta Unibertsitateko artean % 94,0.


“Kontsumoa bultzatzen du Instagramek” esaldiarekin % 70,9 ados edo guztiz ados agertu da. Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean % 50,7k hala uste du; eta Unibertsitateko artean % 82,1ek. Bestalde, “Denbora galtzeko baino ez da Instagram” esaldiarekin adostasuna panelkideen % 30,7k erakutsi du eta gehiago izan dira desados agertu direnak (% 36,7), bereziki Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean. Bukatzeko, “Bizitza alaitu egiten du Instagramek” esaldiarekin, aldiz, % 23,3 agertu da ados eta % 29,4 desados. Desadostasuna handiagoa da Unibertsitateko ikasleen artean (% 31,6) Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean baino (% 25,6).

29. Irudia - Esaldi batzuekin adostasuna

Esaldi batzuekin adostasuna

		Guztiz kontra	Apur bat kontra	Ez ados, ez kontra	Apur bat ados	Guztiz ados	Guztira (n eta %)	
Instagramen postureo gehiegi dago	Guztira	1,6	2,7	9,2	24,2	62,3	100,0	2.932
	BH	3,5	5,0	18,1	26,5	46,8	100,0	1059
	Unibertsitatea	0,6	1,3	4,1	22,9	71,1	100,0	1.873
Kontsumoa bultzatzen du Instagramek	Guztira	4,2	5,2	19,8	37,4	33,4	100,0	2.916
	BH	9,5	10,0	29,8	29,1	21,6	100,0	1046
	Unibertsitatea	1,2	2,5	14,1	42,1	40,0	100,0	1.870
Denbora galtzeko baino ez da Instagram	Guztira	10,9	25,8	32,6	24,3	6,4	100,0	2.931
	BH	16,0	26,1	35,2	17,1	5,6	100,0	1061
	Unibertsitatea	8,0	25,6	31,1	28,3	7,0	100,0	1.870
Bizitza alaitu egiten du Instagramek	Guztira	11,0	18,5	47,3	18,7	4,6	100,0	2.928
	BH	10,0	15,5	45,9	20,0	8,5	100,0	1056
	Unibertsitatea	11,5	20,1	48,1	17,9	2,4	100,0	1.872

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Ikasleek, oro har, 7,0ko puntuazioarekin baloratzen dute batez beste Instagram 0 eta 10 arteko eskalan. Hala ere, Bigarren Hezkuntzako ikasleek Unibertsitatekoek baino ia puntu bat gehiago ematen diote batez beste. Lehenengok 7,6ko puntuazioa eta bigarrenek 6,7koa.

30. Irudia - Instagrami buruzko balorazio orokorra

Instagrami buruzko balorazio orokorra

	Guztira	BH	Unibertsitatea
10	7,3	17,0	2,1
9	8,5	12,9	6,2
8	25,4	27,1	24,4
7	26,9	22,0	29,5
6	13,6	9,2	15,9
5	12,3	8,5	14,3
4	2,5	0,5	3,6
3	1,9	1,6	2,1
2	0,6	0,1	0,9
1	0,6	0,5	0,7
0	0,4	0,4	0,3
Guztira (n eta %)	100,0 2.812	100,0 974	100,0 1.838
Batezbestekoa	7,0	7,6	6,7

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



YOUTUBE


Youtuberi dagokionez, hurrengo galdera egin da: “Youtube martxan zenuen bitartean zertan ari zinen?” Hala, panelkideen % 42,5ek pantailara begira zegoela adierazi duen bitartean, % 18,1ek ikasten ala etxerako lanak egiten zegoela eta % 18,0k jaten zegoela aipatu du. Unibertsitateko ikasleen artean handiagoa da Youtube martxan izanik beste zerbait egiten aritu zirenen kopurua. Izan ere, momentu horretan % 21,0 ikasten edo etxerako lanak egiten zegoen eta % 19,2 jaten zegoen. Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean % 13,9 eta % 16,3 dira hurrenez hurren hori egiten zeudenak.

31. Irudia - Youtube martxan zenuen bitartean zertan ari zinen?

Youtube martxan zenuen bitartean zertan ari zinen?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Pantailara begira nongoen, besterik ez nenbilen egiten	42,5	46,7	39,5
Ikasten nenbilen ala etxerako lanak egiten	18,1	13,9	21,0
Jaten nongoen (bazkaltzen, afaltzen...)	18,0	16,3	19,2
Etxea txukuntzen, platerak garbitzen... halako lanetan nongoen	4,8	4,5	5,1
Youtubeko edukiekin erlazionatutako jarduerak burutzen nenbilen (ariketa fisikoa, tutorialak, esku-lanak egiten...)	2,6	1,8	3,2
Jolasean nenbilen	2,2	2,3	2,2
Lagunekin nongoen bertan, fisikoki	1,9	2,1	1,7
Garraio publikoan nongoen	1,7	1,6	1,7
Lagunekin nongoen sare sozialen bidez konektatuta	0,9	1,3	0,6
Beste bat	7,3	9,5	5,6
Guztira (n eta %)	100,0 3.289	100,0 1.374	100,0 1.915

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Panelkideen laurdenak (% 26,7) musika entzuteko erabiltzen du Youtube eta beste % 26,5ek youtuberrak, gamerrak eta vlogerrak ikusten ditu bertan. Unibertsitateko eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean erabilera hauek oso antzeko ehunekoetan adierazi dira. Ondoren aipatu diren gaien artean daude futbola ikustea, elkarrizketak edota kirol munduko gauzak (% 7,0; % 4,8 eta % 4,8 hurrenez hurren).

32. Irudia - Zein da Youtuben gustukoena duzun gaia edo kategoria?

Zein da Youtuben gustukoena duzun gaia edo kategoria?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Musika	26,7	27,6	26,1
Youtuberrak, gamerrak eta vlogerrak	26,5	24,6	27,9
Futbola	7,0	12,6	3,0
Elkarrizketak	4,8	2,1	6,8
Kirol mundua	4,8	5,6	4,2
Podcastak eta irratia	4,3	2,0	6,1
Makilajea eta moda	4,3	2,7	5,4
Komedia, memeak eta parodiak	4,2	4,3	4,1
Zinea eta serieak	2,6	2,6	2,7
Ariketa fisikoa (cardio, fitness, yoga...)	1,6	1,2	1,9
ASMR	1,3	1,7	1,0
K-pop eta k-dramak	1,1	0,9	1,2
Anime	0,8	1,2	0,6
Albisteak eta politika	0,8	0,7	0,9
Eskulanak eta DIY (Do It Yourself)	0,7	0,5	0,8
Animazioa	0,6	0,6	0,6
Bestelakoa	7,8	9,3	6,7
Guztira (n eta %)	100,0 3.298	100,0 1.383	100,0 1.915

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Panelkideen ia erdiak dio (% 46,4) egunero edo egunean behin baino gehiagotan erabiltzen duela Youtube, eta % 30,4k astean 2-5 aldiz. Oro har, Unibertsitateko ikasleek BHko ikasleek baino gehiago erabiltzen dute.

33. Irudia - Zenbatero erabiltzen duzu Youtube?

Zenbatero erabiltzen duzu Youtube?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Inoiz ez	1,3	1,6	1,1
Hilean behin	7,5	8,5	6,8
Astean behin	14,3	16,6	12,6
2-5 aldiz astean	30,4	32,3	29,1
Egunero	30,4	28,8	31,7
Egunean behin baino gehiagotan	16,0	12,2	18,7
Guztira (n eta %)	100,0 3.291	100,0 1.377	100,0 1.914

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Youtuberen kasuan, ikasleen gehiengoak (% 67,5) aukera izanda ere, ez luke ez gehiago ez gutxiago erabiliko ikus-entzunezko plataforma. Hala ere, % 23,2k apur bat edo askoz gutxiago erabiliko luke eta % 9,3k apur bat edo askoz gehiago. Erabilera murriztearen aldeko jarrera apur bat nabariagoa da Unibertsitateko ikasleen artean.

34. Irudia - Aukera izango bazenu, denbora gehiago ala gutxiago pasatuko zenuke Youtube ikusten?

Aukera izango bazenu, denbora gehiago ala gutxiago pasatuko zenuke Youtube ikusten?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Askoz denbora gutxiago	6,9	5,4	8,0
Denbora apur bat gutxiago	16,3	14,3	17,7
Ez gehiago ezta gutxiago ere	67,5	67,2	67,8
Denbora apur bat gehiago	7,8	10,1	6,1
Askoz denbora gehiago	1,5	3,0	0,4
Guztira (n eta %)	100,0 3.294	100,0 1.379	100,0 1.915

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Inkestatuek Youtube ikusteko gehien erabiltzen duten gailua telefono mugikorra da (% 39,4), nahiz eta inkestan bertan ez zen galdetu aukera moduan (beste aukeraren barruan sartu zuten ikasleek). Horren ondotik, ordenagailu eramangarria erabiltzen dute gehien. Kopuru horiek Unibertsitateko eta BHko ikasleen artean antzeko mantentzen diren arren, lehenengo kasuan ohikoagoak dira bi gailu horiek erabiltzea, BHkoen kasuan baino. Izan ere, Unibertsitateko ikasleen kasuan, % 75,9k mugikorra edo ordenagailu eramangarria erabili ohi du Youtube ikusteko. Baina BHkoen kasuan, aldiz, % 60,7koa da ehuneko hori. Aldiz, tableta eta telebista pantaila bezalako gailuek presentzia handiagoa hartzen dute BHkoen artean (% 16,6 eta % 14,2 hurrenez hurren).

35. Irudia - Zein da gehien erabiltzen duzun gailua Youtube ikusteko?

Zein da gehien erabiltzen duzun gailua Youtube ikusteko?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Ordenagailu eramangarria	30,1	25,0	33,9
Tableta	14,8	16,6	13,5
Telebista pantaila	8,4	14,2	4,1
Mahaiko ordenagailua	6,5	7,0	6,2
Bideo-kontsola	0,8	1,4	0,3
Bestelakoak: Mugikorra	39,4	35,7	42,0
Guztira (n eta %)	100,0 3.302	100,0 1.385	100,0 1.917

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Inkestatuen erdiek (% 46,6) Youtuben zer ikusteko gomendioak Youtube bertako proposamenen ataletik hartzen dituzte. Ehuneko hori altuagoa da Unibertsitateko ikasleen artean. Ikasleen % 21,1ek aldiz, lagunengandik jasotzen ditu gomendioak; eta % 18,1ek sare sozialetatik.

36. Irudia - Youtuben zer ikusiko duzun erabakitzeke orduan, nondik jasotzen dituzu gomendioak?

Youtuben zer ikusiko duzun erabakitzeke orduan, nondik jasotzen dituzu gomendioak?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Youtubeko proposamenen atala	46,6	38,6	52,3
Lagunak	21,1	23,9	19,1
Sare sozialak	18,1	15,0	20,4
Familia	2,4	3,6	1,5
Webguneak	1,7	2,1	1,5
Plataformak edo hornitzaileak (Netflix, HBO, Movistar...)	1,6	2,5	0,9
Publizitatea	1,2	1,6	0,8
Telebista tradizionala	0,3	0,3	0,3
Komunikabide tradizionalak (egunkariak, aldizkariak, irratia)	0,2	0,4	0,1
Beste bat	6,8	11,9	3,2
Guztira (n eta %)	100,0 3.290	100,0 1.374	100,0 1.916

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Youtuben ikusten dituzten bideoen hizkuntza nagusia, kasuen % 77,8n, gaztelania da; kopuru hori % 79,5era igotzen da BHkoen kasuan eta % 76,6ra jaitsi Unibertsitateko ikasleen kasuan. Bestalde, kasuen % 15,7n ingelera da hizkuntza nagusia; (BHkoen kasuen % 10,7 eta Unibertsitatekoen kasuan % 19,2). Azkenik, euskara kasuen % 2,4n da hizkuntza nagusia eta beste hizkuntza bat % 3,9n (BHkoen artean % 6,7 eta Unibertsitatekoen artean % 1,9).

37. Irudia - Zein hizkuntzatan ikusten dituzu gehien bideoak Youtuben?

Ze hizkuntzatan ikusten dituzu gehien bideoak Youtuben?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Gaztelania	77,8	79,5	76,6
Ingelesa	15,7	10,7	19,2
Euskara	2,4	2,9	2,1
Frantsesa	0,2	0,2	0,1
Beste bat	3,9	6,7	1,9
Guztira (n eta %)	100,0 3.296	100,0 1.384	100,0 1.912

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Inkestatuek Youtuberi 7,4ko batez besteko puntuazioa eman diote 0 eta 10 arteko eskala batean. Zertxobait altuagoa da BHkoen artean (7,5) Unibertsitatekoen artean baino (7,3).

38. Irudia - Youtuberi nota jarri beharko bazenio, zer jarriko zenioke?

YOUTUBERi nota bat jarri beharko bazenio, zer jarriko zenioke?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
10	8,6	15,1	3,9
9	13,1	16,0	11,1
8	29,7	24,5	33,6
7	24,9	18,8	29,4
6	10,8	10,1	11,3
5	8,6	10,4	7,3
4	1,5	1,5	1,6
3	1,1	1,1	1,1
2	0,5	1,1	0,2
1	0,7	1,0	0,4
0	0,2	0,4	0,1
Guztira (n eta %)	100,0 3.317	100,0 1.390	100,0 1.927
Batezbestekoa	7,4	7,5	7,3

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



Youtubeko sortzaileak


Noizbait Youtuben bideoen bat igo edo zuzenekoren bat egin duten panelkideak % 13,2 dira. Bigarren Hezkuntzako kasuan % 14,7ra igo da ehunekoak eta Unibertsitatekoei dagokienez % 12,1era jaitsi.

39. Irudia - Youtuben edukiak ikusteaz gain, igo al duzu inoiz bideorik edo egin duzu inoiz zuzenkorik (live-ik)??

Youtuben edukiak ikusteaz gain, igo al duzu inoiz bideorik edo egin duzu inoiz zuzenkorik (live-ik)?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Bai	13,2	14,7	12,1
Ez	86,8	85,3	87,9
Guztira (n eta %)	100,0 3.337	100,0 1.410	100,0 1.927

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Youtuben noizbait edukiren bat sortu duten horiei hurrengo esaldiak luzatu zaizkie eta bertan deskribatzen dena egiten duten maiztasunarekin adierazi dute. Maiztasun handienarekin egiten denetik txikienarekin egiten denera ordenatuta aurkezten dira segidan ekintzak. % 53,4k beste erabiltzaileek igotako edukiak egunero ikusten ditu, bereziki Unibertsitateko ikasleen artean (% 58,3). Bestetik, % 20,5ek bideoetan “atsegin dut” edo “ez dut atsegin” egunero ematen du. Gutxiago egiten diren ekintzak dira bideoetan iruzkinak idaztea (% 4,5ek egunero) edota norberak grabatutako bideoak igotzea (% 3,7k egunero).

40. Irudia - Zein maiztasunarekin egiten diren ekintza batzuk Youtuben

Zein maiztasunarekin egiten diren ekintza batzuk Youtuben

		Inoiz ez ala oso gutxitan	Hilean behin baino gehiagotan	Astean behin	Astean behin baino gehiagotan	Egunero edo ia egunero	Egunero behin baino gehiagotan	Guztira (n eta %)	
Beste erabiltzaileek igotako edukiak ikusi	Guztira	8,7	6,6	13,7	17,6	27,4	26,1	100,0	380
	BH	13,1	3,4	17,2	20,7	26,9	18,6	100,0	145
	Unibertsitatea	6,0	8,5	11,5	15,7	27,7	30,6	100,0	235
Bideoetan `atsegin dut´ edo `ez dut atsegin´ eman	Guztira	40,3	9,7	12,1	17,4	11,8	8,7	100,0	380
	BH	29,0	15,9	16,6	17,9	10,3	10,3	100,0	145
	Unibertsitatea	47,2	6,0	9,4	17,0	12,8	7,7	100,0	235
Bideoetan iruzkinak/aipamenak idatzi	Guztira	71,0	9,6	8,8	6,1	1,9	2,7	100,0	376
	BH	54,5	14,7	14,7	7,7	2,8	5,6	100,0	143
	Unibertsitatea	81,1	6,4	5,2	5,2	1,3	0,9	100,0	233
Nik grabatutako eta editatutako bideoa igo	Guztira	72,8	14,3	5,0	4,2	1,6	2,1	100,0	378
	BH	55,2	18,9	10,5	7,0	4,2	4,2	100,0	143
	Unibertsitatea	83,4	11,5	1,7	2,6	0,0	0,9	100,0	235
Zuzenekoak egin (live)	Guztira	86,2	4,0	3,4	2,6	2,4	1,3	100,0	378
	BH	72,7	9,1	5,6	5,6	3,5	3,5	100,0	143
	Unibertsitatea	94,5	0,9	2,1	0,9	1,7	0,0	100,0	235
Beste baten bideoa igo	Guztira	88,3	2,7	3,2	3,7	1,3	0,8	100,0	376
	BH	78,0	5,7	6,4	4,3	3,5	2,1	100,0	141
	Unibertsitatea	94,5	0,9	1,3	3,4	0,0	0,0	100,0	235

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Youtuben edukiak sortzen dituzten panelkideen artean % 28,0k gamer estiloko bideoak sortzen ditu, % 7,6k komediazko bideoak; % 5,4k kantuen bertsioak eta kantu propioak abesten dituen bideoak eta % 5,1ek Youtuber estiloko bideoak. Datuak BHko ikasleak izan edo Unibertsitateko ikasleak izan ez dira berdinak. BHkoen kasuan % 40,0k gamer estiloko bideoak igotzen ditu, % 8,5ek komediazko bideoak eta % 6,9k Youtuber estiloko bideoak. Aitzitik, Unibertsitateko ikasleen artean % 21,1ek gamer estiloko bideoak sortzen dituen artean, % 7,2k komediazko bideoak igotzen ditu eta % 6,7k kantuen bertsioak eta kantu propioak abesten dituen bideoak. Hala ere, panelista sortzaileek, oro har, beste era bateko bideoak sortzen dituzte kasuen % 29,5ean; BHko ikasleen kasuan kopuru hori % 19,2koa da eta Unibertsitateko ikasleen kasuan % 35,4koa.

41. Irudia - Youtuberako igotzen dituzun bideoen artean, zein da gehien igotzen duzun bideo mota?

Youtuberako igotzen dituzun bideoen artean, zein da gehien igotzen duzun bideo mota?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Gamer estiloko bideoak	28,0	40,0	21,1
Komediazko bideoak	7,6	8,5	7,2
Kantuen bertsioak eta kantu propioak abesten ditudan bideoak	5,4	3,1	6,7
Youtuber estiloko bideoak	5,1	6,9	4,0
Lagunekin nagoela egindako bideoak	4,8	2,3	6,3
Vlogak	4,8	5,4	4,5
Kirol bideoak	4,2	3,8	4,5
Tutorialak (makillajea, moda, eskulanak, kirola...)	3,4	1,5	4,5
Zuzenekoak (live)	2,3	2,3	2,2
Iritzi edo kritika bideoak (reviews)	1,4	0,8	1,8
Unboxing bideoak	1,4	2,3	0,9
ASMR bideoak	1,1	2,3	0,4
Podcastak	0,8	1,5	0,4
Bestelakoak	29,5	19,2	35,4
Guztira (n eta %)	100,0	100,0	100,0
	353	130	223

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Sortzen dituzten edukien artean beti euskaraz sortzen dituztenen kopurua % 13,0koa da, beste aldean, beti gaztelaniaz sortzen dutenak erdiak dira (% 51,9). Euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza batean sortzen dute % 13,0k. Unibertsitateko ikasleen artean gehiago dira beti euskaraz sortzen dituztenak (% 18,1) eta BHkoen artean gehiago dira beti gaztelaniaz sortzen dituztenak (% 57,3).

42. Irudia - Zein hizkuntzatan sortzen dituzu bideoak?

Ze hizkuntzatan sortzen dituzu bideoak?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Beti euskaraz sortzen ditut edukiak.	13,0	4,0	18,1
Euskaraz gaztelania z baino gehiago sortzen dut.	8,1	6,5	9,0
Bai euskaraz eta bai gaztelaniaz proportzio berdinean sortzen dut.	5,8	5,6	5,9
Gaztelania z euskaraz baino gehiago sortzen dut.	8,1	10,5	6,8
Beti gaztelania z sortzen ditut edukiak.	51,9	57,3	48,9
Euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza batean gehiago	13,0	16,1	11,3
Guztira (n eta %)	100,0 345	100,0 124	100,0 221

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



TikTok


Inkestaturen % 72,8k TikTok kontua du; kopurua nabarmen handiagoa da BHko ikasleen kasuan (% 81,6) Unibertsitatekoen kasuan baino (% 66,1).

43. Irudia - Baduzu TikTok konturik?

Baduzu TikTok konturik?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Bai	72,8	81,6	66,1
Ez	27,2	18,4	33,9
Guztira (n eta %)	100,0 3.255	100,0 1.405	100,0 1.850

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




TikTok dutenen artean % 31,8k egunean behin baino gehiagotan erabiltzen du eta % 29,1ek egunero. Bien batura eginda, TikTok duten ikasleen hamarretik seik (% 60,8) egunero gutxienez behin erabiltzen du. BHkoen kasuan ehuneko hori % 69,6ra igotzen da.

44. Irudia - Zenbatero erabiltzen duzu TikTok ?

Zenbatero erabiltzen duzu TikTok ?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Inoiz ez	27,1	17,4	34,4
Hilean behin	2,4	1,6	3,0
Astean behin	2,6	3,3	2,1
2-5 aldiz astean	7,0	7,9	6,4
Egunero	29,1	35,8	23,9
Egunean behin baino gehiagotan	31,8	33,8	30,2
Guztira (n eta %)	100,0 3.266	100,0 1.410	100,0 1.856

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




TikTok inoiz erabili dutenen % 33,6k dio aplikazioari eskaintzen dion denbora aldatzeko aukera izango balu ere ez lukeela aldatuko. % 59,0k aldiz, denbora apur bat edo askoz gutxiago eskaini nahiko lioke eta % 7,4k denbora gehiago. TikTok i denbora gutxiago eskainiko lioketenak batez ere Unibertsitateko ikasleak dira.

45. Irudia - Aukera izango bazenu, denbora gehiago edo gutxiago pasako zenuke TikTok en?

Aukera izango bazenu, denbora gehiago ala gutxiago pasatuko zenuke TikTok en?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Askoz denbora gutxiago	29,3	18,9	39,2
Denbora apur bat gutxiago	29,8	26,8	32,5
Ez gehiago ezta gutxiago ere	33,6	40,7	26,8
Denbora apur bat gehiago	5,0	9,2	1,1
Askoz denbora gehiago	2,3	4,4	0,3
Guztira (n eta %)	100,0	100,0	100,0
	2.366	1.155	1.211

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




TikTok noizbait erabili duten panelkideen artean, aplikaziora bertara sartzeko gehien erabiltzen duten gailua telefono mugikorra da (% 96,0).

46. Irudia - Zein gailu erabiltzen duzu gehien TikTok era sartzeko?

Zein gailu erabiltzen duzu gehien TikTok era sartzeko?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Telefono mugikorra	96,0	94,1	97,8
Tableta	2,2	3,0	1,5
Ordenagailu eramangarria	0,7	0,9	0,5
Telebista pantaila	0,3	0,5	0,1
Bestelakoa	0,8	1,5	0,1
Guztira (n eta %)	100,0 2.368	100,0 1.159	100,0 1.209

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




TikTok erabili duten ikasleen artean % 53,2k egunero behin baino gehiagotan erabilera orokorra ematen dio. Bestetik, % 48,6k egunero behin baino gehiagotan beste erabiltzaileek igotako bideoak ikusten ditu eta % 39,8k atsegin dituen bideoetan bihotzari ematen dio egunean behin baino gehiagotan. Aldiz, % 66,7k besteen bideoetan iruzkinak/aipamenak ez ditu inoiz edo ia inoiz egiten eta, modu berean, % 81,5ek ez du inoiz edo ia inoiz bideorik igo eta % 94,2k ez du inoiz edo ia inoiz zuzenkorik egin.

47. Irudia - Zein maiztasunekin egiten diren ekintza batzuk TikTok en?

Zein maiztasunekin egiten diren ekintza batzuk TikTok en

		Ez dut inoiz egin ala oso gutxitan	Hilean behin baino gehiagotan	Astean behin	Astean behin baino gehiagotan	Egunero edo ia egunero	Egunero behin baino gehiagotan	Guztira (n eta %)	
TikTok en erabilera orokorrean	Guztira	4,8	2,4	4,1	8,4	27,1	53,2	100,0	2.356
	BH	5,6	2,3	4,9	8,8	27,3	51,1	100,0	1146
	Unibertsitatea	4,0	2,5	3,4	7,9	26,9	55,2	100,0	1210
Beste erabiltzaileek igotako bideoak ikusi	Guztira	4,8	3,9	5,2	10,2	27,4	48,6	100,0	2.347
	BH	5,5	4,8	6,1	10,7	26,6	46,3	100,0	1139
	Unibertsitatea	4,1	3,0	4,3	9,7	28,2	50,7	100,0	1208
Atsegin ditudan bideoetan bihotzari eman	Guztira	11,7	6,6	6,8	12,5	22,5	39,8	100,0	2.347
	BH	10,4	6,5	6,8	10,4	20,2	45,6	100,0	1139
	Unibertsitatea	12,9	6,6	6,8	14,5	24,8	34,4	100,0	1208
Besteen bideoetan iruzkinak/aipamenak idatzi	Guztira	66,7	10,4	6,1	6,5	6,1	4,2	100,0	2.328
	BH	50,3	13,9	8,9	9,4	10,2	7,3	100,0	1119
	Unibertsitatea	81,8	7,3	3,6	3,9	2,2	1,2	100,0	1209
Bideoak igo	Guztira	81,5	8,2	3,8	2,6	2,1	1,7	100,0	2.352
	BH	72,7	10,0	5,9	4,0	3,9	3,5	100,0	1141
	Unibertsitatea	89,8	6,6	1,9	1,2	0,5	0,1	100,0	1211
Zuzenekoak egin (live)	Guztira	94,2	1,7	1,3	1,2	0,8	0,9	100,0	2.344
	BH	90,6	2,5	1,8	1,9	1,6	1,6	100,0	1137
	Unibertsitatea	97,6	1,0	0,7	0,5	0,0	0,2	100,0	1207

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




TikTok noizbait erabili dutenen artean % 78,7k gaztelaniaz ikusten ditu bideoak, eta kasuen % 17,5ean ingelesez. BHko ikasleen artean gehiagok ikusten ditu gaztelaniazko bideoak (% 83,7) eta aldiz, Unibertsitateko gehiagok (% 24,4) ingelesezkoak. Euskarak duen pisua % 0,7koa da

48. Irudia - TikTok en ikusten dituzun bideoetan zein da hizkuntza nagusia?

TikTok en ikusten dituzun bideoetan zein da hizkuntza nagusia?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Gaztelania	78,7	83,7	73,9
Ingelesa	17,5	10,4	24,4
Euskara	0,7	1,2	0,2
Frantsesa	0,2	0,3	0,1
Beste bat	2,8	4,3	1,4
Guztira (n eta %)	100,0 2.365	100,0 1.156	100,0 1.209

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



TikTok eko sortzaileak


TikTok erabiltzaileen % 23,6k bideoak igotzen ditu aplikaziora; BHko ikasleen kasuan % 28,9k eta Unibertsitatekoen kasuan % 18,6k.

49. Irudia - Igotzen duzu bideorik TikTok era?

Igotzen duzu bideorik TikTok era?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Bai	23,6	28,9	18,6
Ez	76,4	71,1	81,4
Guztira (n eta %)	100,0	100,0	100,0
	2.381	1.164	1.217

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Sortzaileen % 22,6k bideo barregarriak igotzea gustuko du, % 16,3k modan dauden bideoen bertsioak eta % 16,0k koreografiak. Unibertsitateko ikasleen kasuan ehuneko altuagoa dute tendentzia diren bideoen bertsioetan zein koreografietan. Aldiz, BHko ikasleen artean bestelako bideoak igotzen dituztela aipatzen dute askok (% 32,3).

50. Irudia - Zeintzuk dira TikTok era igotzea gogokoan dituzun bideoak??

Zeintzuk dira TikTok era igotzea gogokoan dituzun bideoak?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Bideo barregarriak.	22,6	22,9	22,3
Tendentzia diren bideoen bertsioak (biralak, hashtag popular...)	16,3	13,7	20,1
Koreografiak.	16,0	14,6	17,9
Nire egunerokoan pasatzen zaizkidan gauzen bideoak.	7,7	4,6	12,2
Kantuen coverrak.	6,8	8,5	4,4
Challenge-ak.	3,9	3,4	4,8
Bestelakoak	26,6	32,3	18,3
Guztira (n eta %)	100,0	100,0	100,0
	557	328	229

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Sortzaileen % 66,2k beti gaztelaniaz sortzen ditu bideoak, % 13,1ek gaztelaniaz euskaraz baino gehiago eta % 13,5ek hirugarren hizkuntzaren batean. Beti euskaraz edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago aipatu duten ikasleak % 2,9 dira, zertxobait gehiago Unibertsitateko ikasleen artean (% 4,0).

51. Irudia - Hizkuntza aldetik, ze hizkuntza erabiltzen duzu TikTok erako sortzen dituzun bideoetan?

Hizkuntza aldetik, ze hizkuntza erabiltzen duzu TikTok erako sortzen dituzun bideoetan?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Beti euskaraz sortzen ditut bideoak.	1,1	0,6	1,8
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago sortzen dut.	1,8	1,5	2,2
Bai euskaraz eta bai gaztelaniaz proportzio berdinean sortzen dut.	4,3	4,8	3,5
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago sortzen dut.	13,1	13,6	12,4
Beti gaztelaniaz sortzen ditut bideoak.	66,2	63,9	69,5
Euskara eta gaztelaniaz ez diren beste hizkuntza batean gehiago	13,5	15,5	10,6
Guztira (n eta %)	100,0 556	100,0 330	100,0 226

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Sortzaileen artean 8,0ko balorazioa eman diote aplikazioari batez beste, 0 eta 10 arteko eskala batean. Puntuazio hori altuagoa da BHko ikasleen artean (8,4) Unibertsitatekoen artean baino (7,4).

52. Irudia - TikTok i nota bat jarri beharko bazenien, nolako jarriko zenioke??

TikTok i nota bat jarri beharko bazenien, nolako jarriko zenioke?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
10	26,5	41,1	5,3
9	17,2	19,3	14,2
8	23,0	15,0	34,7
7	18,1	10,4	29,3
6	4,9	4,3	5,8
5	6,7	5,8	8,0
4	1,1	1,2	0,9
3	1,1	1,5	0,4
2	0,0	0,0	0,0
1	0,7	0,9	0,4
0	0,5	0,3	0,9
Guztira (n eta %)	100,0 551	100,0 326	100,0 225
Batezbestekoa	8,0	8,44	7,44

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



TWITTER


Panelkideen % 48,3k ez du Twitterra erabiltzen eta beste % 51,7k bai. Erabiltzen dutenak batez ere Unibertsitateko ikasleak dira (% 62,0) eta ez horrenbeste BHkoak (% 38,6). Ikasleen % 18,7k kontu publikoa duela adierazi du, beste % 26,3k kontu pribatua eta gainerako % 6,7k ez daki bere kontua nolakoa den.

53. Irudia - Badaukazu Twitterren konturik, eta hala bada, nolakoa da kontu hori?

Badaukazu Twitterren konturik, eta hala bada, nolakoa da kontu hori?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Ez dut Twitter erabiltzen	48,3	61,4	38,0
Kontu publikoa daukat	18,7	10,2	25,4
Kontu pribatua daukat	26,3	22,1	29,6
Badut kontua baina ez dakit nolakoa	6,7	6,3	7,0
Guztira (n eta %)	100,0 3.014	100,0 1.330	100,0 1.684

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Panelkideen artean % 11,4k egunero erabiltzen du Twitter, % 7,1ek egunean behin edo gehiagotan eta % 8,5ek 2-5 aldiz astean. Unibertsitateko ikasleek maiztasun handiagoarekin erabiltzen dute aplikazioa, % 25,9k egunero behin edo gehiagotan (BHkoen artean ehuneko hori % 9,3ra jaisten da).

54. Irudia - Zenbatero erabiltzen duzu Twitter?

Zenbatero erabiltzen duzu Twitter?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Inoiz ez	55,8	68,1	45,9
Hilean behin	9,7	10,5	9,1
Astean behin	7,5	6,6	8,2
2-5 aldiz astean	8,5	5,4	10,9
Egunero	11,4	6,3	15,4
Egunean behin baino gehiagotan	7,1	2,9	10,5
Guztira (n eta %)	100,0 3.027	100,0 1.340	100,0 1.687

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Twitter erabiltzen dutenen artean % 71,2k aipatu du nahiz eta eskaintzen dion denbora aldatzeko aukera izan, ez lukeela aldatuko. Hala ere, % 9,1ek denbora apur bat edo askoz gehiago dedikatu nahiko lioke, eta % 19,7k apur bat edo askoz gutxiago.

55. Irudia - Aukera izango bazenu, denbora gehiago ala gutxiago pasatuko zenuke Twitterren?

Aukera izango bazenu, denbora gehiago ala gutxiago pasatuko zenuke Twitterren?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Askoz denbora gutxiago dedikatuko nioke	7,1	8,5	6,4
Denbora gutxiago dedikatuko nioke	12,7	9,7	14,1
Ez gehiago ezta gutxiago ere	71,2	71,9	70,8
Denbora apur bat gehiago dedikatuko nioke	8,3	8,3	8,4
Askoz denbora gehiago dedikatuko nioke	0,8	1,7	0,3
Guztira (n eta %)	100,0 1.332	100,0 424	100,0 908

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Twitter erabiltzeko gailurik ohikoena telefono mugikorra da (% 94,0).

56. Irudia - Zein gailu erabiltzen duzu gehien Twitterrera sartzeko?

Zein gailu erabiltzen duzu gehien Twitterrera sartzeko?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Telefono mugikorra (smartphone)	94,0	90,7	95,5
Ordenagailu eramangarria	2,2	3,3	1,7
Mahaiko ordenagailua	1,6	1,9	1,4
Tableta	1,4	2,4	0,9
Internetera konektatutako telebista (Smart TV)	0,4	0,5	0,3
Bideo-kontsola	0,4	0,7	0,2
Bestelakoa	0,2	0,5	0,0
Guztira (n eta %)	100,0 1.329	100,0 421	100,0 908

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Twitter erabiltzen duten inkestaturen artean, bertan kontsumitzen dituzten edukien hizkuntza nagusia gaztelania da (% 81,2), eta ondoren datoz % 10,1arekin ingelesa eta % 7,6arekin euskara. Unibertsitateko ikasleen artean gehiago dira nagusiki edukiak euskaraz kontsumitzen dituztenak (% 8,8) BHko ikasleekin alderatuz (% 5,0).

57. Irudia - Twitterren irakurri ala ikusten dituzun gauzetan zein da hizkuntza nagusia?

Twitterren irakurri ala ikusten dituzun gauzetan zein da hizkuntza nagusia?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Gaztelania	81,2	82,2	80,7
Euskara	7,6	5,0	8,8
Ingelesa	10,1	11,6	9,4
Frantsesa	0,3	0,9	0,0
Beste bat	0,8	0,2	1,1
Guztira (n eta %)	100,0 1.330	100,0 422	100,0 908

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Twitterreko erabiltzaileek plataforman gehien jarraitzen dituzten gaiak edo kategoriak 'komedia, memeak eta parodiak' dira (% 22,5). Beste % 14,4k gizarteko gaiak eta pertsonak jarraitzen ditu, % 11,2k futbola eta % 10,3k albisteak eta politika. Unibertsitateko ikasleen artean gehien bat komedia, memeak eta parodiak (% 25,1) eta gizarteko gaiak eta pertsonak (% 15,9) jarraitzen dira. Eta BHko ikasleen artean futbola (% 16,7) eta komedia, memeak eta parodiak (% 16,7) neurri berean.

58. Irudia - Zein da Twitterren gehien jarraitzen duzun gaia edo kategoria?

Zein da Twitterren gehien jarraitzen duzun gaia edo kategoria?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Komedia, memeak eta parodiak	22,5	16,7	25,1
Gizarteko gaiak eta pertsonak	14,4	10,9	15,9
Futbola	11,2	16,7	8,7
Albisteak eta politika	10,3	6,3	12,2
Kirol mundua	10,3	10,9	10,1
Famatuak, celebrityak...	7,2	8,2	6,7
Musika	5,6	5,1	5,9
Zinea eta serieak	4,8	5,8	4,3
Artea, kultura...	3,8	2,4	4,4
Makilajea eta moda	1,2	2,2	0,8
Ariketa fisikoa (cardio, fitness, yoga...)	0,7	1,5	0,3
Ekonomia	0,2	0,5	0,1
Bestelakoa	7,7	12,8	5,4
Guztira (n eta %)	100,0 1.317	100,0 413	100,0 904

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



Twitterreko erabiltzaileen % 46,1ek egunero behin edo behin baino gehiagotan besteen txioak irakurtzen ditu. Bereziki altuagoa da ehunekoa Unibertsitateko ikasleen artean (% 53,2). Ikasleen beste % 30,4k besteen txioetan bihotzari ematen dio egunero edo ia egunero.


Besten txioak bertxiotzea edo txioei erantzutea edo besteen txioak aipamen batekin bertxiotzea edo txio propio bat idaztea bezalako aktibitateak ez dira hainbesteko maiztasunarekin egiten ikasleen artean.

59. Irudia - Ekintza bakoitza zein maiztasunarekin egiten den Twitterren

Ekintza bakoitza zein maiztasunarekin egiten den Twitterren.

		Ez dut inoiz egin ala oso gutxitan	Hilean behin baino gehiagotan	Astean behin	Astean behin baino gehiagotan	Egunero edo ia egunero	Egunero behin baino gehiagotan	Guztira (n eta %)	
Besteen txioak irakurri	Guztira	12,2	13,7	13,7	14,4	19,5	26,5	100,0	1326
	BH	23,1	18,3	15,6	12,5	13,0	17,5	100,0	416
	Unibertsitatea	7,3	11,5	12,7	15,3	22,5	30,7	100,0	910
Besteen txioetan bihotzari eman	Guztira	29,3	15,7	10,6	14,0	14,0	16,4	100,0	1320
	BH	36,4	18,9	10,0	11,4	8,5	14,8	100,0	412
	Unibertsitatea	26,1	14,2	10,9	15,2	16,5	17,1	100,0	908
Besteen txioak birtxiokatu (retweet)	Guztira	50,0	18,0	9,8	9,3	6,8	6,1	100,0	1307
	BH	56,5	13,9	9,2	8,0	5,5	7,0	100,0	402
	Unibertsitatea	47,2	19,8	10,1	9,8	7,4	5,7	100,0	905
Besteen txioei erantzun edo aipamena idatzi (reply)	Guztira	68,6	13,2	6,1	5,5	3,3	3,3	100,0	1319
	BH	68,0	11,7	6,1	6,6	3,2	4,4	100,0	410
	Unibertsitatea	68,9	13,9	6,2	5,0	3,3	2,9	100,0	909
Txio bat idatzi	Guztira	68,9	15,3	4,8	5,4	2,8	2,8	100,0	1323
	BH	69,5	13,3	4,8	5,1	2,7	4,6	100,0	413
	Unibertsitatea	68,7	16,2	4,8	5,5	2,9	2,0	100,0	910
Besteen txioak birtxiokatu aipamen batekin (quote retweet)	Guztira	72,6	11,0	5,4	5,1	3,0	2,8	100,0	1314
	BH	74,0	9,1	5,4	5,2	2,0	4,4	100,0	407
	Unibertsitatea	72,0	11,9	5,4	5,1	3,5	2,1	100,0	907
Txioak irudi edo bideoekin igo	Guztira	80,0	10,9	3,4	3,0	1,4	1,4	100,0	1317
	BH	77,4	10,5	4,9	2,7	2,2	2,4	100,0	411
	Unibertsitatea	81,1	11,0	2,8	3,1	1,0	1,0	100,0	906
Bozketa bat sortu	Guztira	93,0	3,5	1,4	0,8	0,6	0,8	100,0	1324
	BH	89,1	4,6	1,9	1,7	1,0	1,7	100,0	414
	Unibertsitatea	94,7	3,1	1,1	0,3	0,4	0,3	100,0	910
Fleet-ak (Twitterreko story-ak) igo	Guztira	94,8	1,7	1,1	1,5	0,5	0,4	100,0	1322
	BH	91,0	2,9	1,2	3,4	0,5	1,0	100,0	413
	Unibertsitatea	96,5	1,2	1,0	0,7	0,6	0,1	100,0	909

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



TikTok eko sortzaileak


Twitter erabiltzaileen erdiek (% 51,5) diote ez dutela txorik idazten inoiz. Beste % 24,9k beti gaztelaniaz sortzen ditu edukiak, % 10,4k gaztelaniaz euskaraz baino gehiago eta % 3,9k berdintsu bi hizkuntzetan. Azkenik % 3,3k euskaraz gaztelaniaz baino gehiago sortzen du eta % 3,6k beti euskaraz.

60. Irudia - Zein hizkuntza erabiltzen duzu gehiago Twitterren txioak idazterakoan?

Zer hizkuntza erabiltzen duzu gehiago Twitterren txioak idazterakoan?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Ez dut txorik idazten Twitterren.	51,5	56,6	49,2
Beti euskaraz	3,6	2,9	3,9
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	3,3	1,7	4,1
Berdintsu bai euskaraz eta bai gaztelaniaz	3,9	3,6	4,1
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	10,4	9,5	10,9
Beti gaztelaniaz	24,9	23,1	25,7
Euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza batean jartzen ditut gehiago	2,3	2,7	2,2
Guztira (n eta %)	100,0 1.321	100,0 412	100,0 909

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Ikasle erabiltzaileek Twitterri eman dioten batez besteko balorazioa 6,5ekoa izan da 0 eta 10 arteko eskala batean. Puntuazio altuagoa eman diote Unibertsitateko ikasleek (6,8) BHkoek baino (6,0).

61. Irudia - Twitterri nolako nota jarriko zenioke?

Twitterri nolako nota jarriko zenioke?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
10	6,0	7,5	5,4
9	11,0	9,5	11,7
8	18,4	12,3	21,2
7	22,1	16,0	24,8
6	13,9	12,3	14,6
5	14,9	20,8	12,3
4	4,3	5,3	3,9
3	3,5	5,5	2,6
2	2,6	4,8	1,6
1	2,3	4,3	1,5
0	0,9	1,8	0,6
Guztira (n eta %)	100,0 1.291	100,0 399	100,0 892
Batezbestekoa	6,5	6,0	6,8

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



STREAMING PLATAFORMAK

2022/2023 ikasturtean, azken ikus-entzunezkoa eta sare sozial nagusien inguruko informazioaz gain, beste gai batzuk ere jorratu dira. Horietako bat streaming plataformen kontsumoari buruzkoa izan da. Atal honetan, gai horri buruz bildutako informazioa jasotzen da.

Hasteko, hamahiru plataforma digitaleko zerrenda bat aurkeztu zaie eta horietatik zeintzuk dituzten eskura galdetu zaie. Plataforma guztien kasuan (Anime FLV izan ezik), Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean gehiago izan dira eskura dituztela adierazi dutenak Unibertsitatekoak baino.


Zehazki, plataforma bakoitzaren erabilerari erreparatuta, joerak antzekoak dira. Netflix da gehien aipatzen dutena: % 77,3k dio eskura duela. Bigarren lekuan Amazon Prime Video dago, erantzuleen % 60,9k aipatuta. Hirugarren lekuan Disney+ agertzen da, % 39,1k aipatuta; eta laugarrenean Movistar + dago, % 31,7k baitu eskuragarri. Hortik aurrerako plataformen kasuan, herenak baino gutxiagok ditu eskura.

62. Irudia - Eskura dituzten plataforma digital, streaming zerbitzu edota OTT-ak (aukera anitza)

Eskura dituzten plataforma digital, streaming zerbitzu edota OTT-ak. (aukera anitza)

		Ez daukat/Ez dut erabiltzen	Bai	Guztira (n eta %)	
Netflix	Guztira	22,7	77,3	100,0	3.007
	BH	21,4	78,6	100,0	1329
	Unibertsitatea	23,7	76,3	100,0	1.678
Amazon Prime Video	Guztira	39,1	60,9	100,0	2.972
	BH	35,4	64,6	100,0	1298
	Unibertsitatea	41,9	58,1	100,0	1.674
Disney+	Guztira	60,9	39,1	100,0	2.969
	BH	57,3	42,7	100,0	1294
	Unibertsitatea	63,6	36,4	100,0	1.675
Movistar+	Guztira	68,3	31,7	100,0	2.961
	BH	64,1	35,9	100,0	1288
	Unibertsitatea	71,5	28,5	100,0	1.673
HBO	Guztira	70,7	29,3	100,0	2.972
	BH	68,6	31,4	100,0	1299
	Unibertsitatea	72,4	27,6	100,0	1.673
Dazn	Guztira	75,8	24,2	100,0	2.951
	BH	71,9	28,1	100,0	1281
	Unibertsitatea	78,8	21,2	100,0	1.670
Euskaltel	Guztira	76,8	23,2	100,0	2.939
	BH	73,8	26,2	100,0	1273
	Unibertsitatea	79,1	20,9	100,0	1.666
Anime FLV	Guztira	85,5	14,5	100,0	2.943
	BH	86,3	13,7	100,0	1275
	Unibertsitatea	85,0	15,0	100,0	1.668
Rakuten TV	Guztira	92,2	7,8	100,0	2.930
	BH	87,4	12,6	100,0	1265
	Unibertsitatea	95,9	4,1	100,0	1.665
Apple TV	Guztira	92,6	7,4	100,0	2.935
	BH	88,0	12,0	100,0	1266
	Unibertsitatea	96,0	4,0	100,0	1.669
Filmin	Guztira	93,5	6,5	100,0	2.932
	BH	91,0	9,0	100,0	1265
	Unibertsitatea	95,4	4,6	100,0	1.667
Sky	Guztira	95,6	4,4	100,0	2.934
	BH	93,7	6,3	100,0	1265
	Unibertsitatea	97,1	2,9	100,0	1.669
beIn Connect	Guztira	97,3	2,7	100,0	2.932
	BH	94,3	5,7	100,0	1271
	Unibertsitatea	99,6	0,4	100,0	1.661

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



Plataforma bakoitza eskuragarri daukaten eta erabiltzen duten pertsonen kasuan, erabiltzeko arrazoi nagusiaz galdetu zaie. Lau arrazoi posible planteatu dira, eta horietako bat aukeratu du plataforma hori erabiltzen duen erantzule bakoitzak.

Argudio nagusia, kasu gehienetan, plataformako edukiak gustuko dituztela izan da. Hala gertatzen da hamabi plataformaren kasuan (Euskaltel izan ezik) eta batez beste, plataforma guztien artean, panelkideen % 42,9 kokatu da aukera honetan. Bigarren arrazoi nagusia prezioa da (% 21,5eko ehuneko orokorra du) eta bereziki altua da Euskaltel, Rakuten TV, Sky eta Amazon Prime Videoren kasuan. Hirugarren arrazoi nagusia interfazea eta erabilera eroso da (% 20,7ko ehuneko orokorra du) eta bereziki altua da Euskaltel, Anime FLV, Apple TV eta beln Connecten kasuan. Bukatzeko, laugarren arrazoi nagusia plataforma hori lagunek izatea da (% 15,0ko ehuneko orokorra du) eta bereziki altua da Disney+, Dazn, Apple TV, Filmin eta beln Connecten kasuan.


Joera desberdin batzuk ikusten dira BH eta Unibertsitateko panelen artean. Azken horien artean, pisu handiagoa aitortzen zaio edukiak gustuko izatearen arrazoiari (batez beste plataforma guztien aukeraketarako % 47,1rentzat izan da arrazoi nagusia) edota prezioari, eta, aldiz, BHko ikasleen kasuan, edukiak gustuko izateaz gain, garrantzitsua da interfazea edo erabilera eroso izatea.

63. Irudia - Plataforma digital, streaming zerbitzu edota OTT bakoitza erabiltzeko arrazoi nagusiak

Plataforma digital, streaming zerbitzu edota OTT bakoitza erabiltzeko arrazoi nagusiak

		Edukiak gustatzen zaizkit (serieak, pelikulak...)	Prezioagatik (merkea da/doan lortzen dut...)	Lagunek eta ezagunek daukate	Interfazea eta erabilera erosoak ditu	Guztira (n eta %)	
Netflix	Guztira	61,4	13,0	5,8	19,8	100,0	2.325
	BH	53,2	12,1	5,6	29,1	100,0	1045
	Unibertsitatea	68,0	13,8	6,0	12,2	100,0	1280
Amazon Prime Video	Guztira	46,6	27,7	8,3	17,4	100,0	1.811
	BH	43,9	20,0	8,2	27,8	100,0	838
	Unibertsitatea	48,9	34,3	8,3	8,4	100,0	973
Disney+	Guztira	52,8	14,1	19,7	13,3	100,0	1162
	BH	44,7	12,5	19,6	23,2	100,0	552
	Unibertsitatea	60,2	15,6	19,8	4,4	100,0	610
Movistar+	Guztira	42,0	23,2	13,1	21,7	100,0	939
	BH	36,4	19,3	11,7	32,7	100,0	462
	Unibertsitatea	47,4	27,0	14,5	11,1	100,0	477
HBO	Guztira	48,6	17,4	16,4	17,6	100,0	870
	BH	39,2	18,9	15,4	26,5	100,0	408
	Unibertsitatea	56,9	16,0	17,3	9,7	100,0	462
Dazn	Guztira	44,1	19,7	17,2	18,9	100,0	714
	BH	39,4	20,0	12,5	28,1	100,0	360
	Unibertsitatea	48,9	19,5	22,0	9,6	100,0	354
Euskaltel	Guztira	25,8	38,5	10,2	25,5	100,0	683
	BH	27,8	25,7	13,5	32,9	100,0	334
	Unibertsitatea	23,8	50,7	7,2	18,3	100,0	349
Anime FLV	Guztira	51,9	12,4	9,2	26,5	100,0	426
	BH	41,1	12,0	13,7	33,1	100,0	175
	Unibertsitatea	59,4	12,7	6,0	21,9	100,0	251
Rakuten TV	Guztira	32,5	31,1	14,5	21,9	100,0	228
	BH	33,1	26,3	13,1	27,5	100,0	160
	Unibertsitatea	30,9	42,6	17,6	8,8	100,0	68
Apple TV	Guztira	34,4	18,3	21,6	25,7	100,0	218
	BH	36,2	14,5	22,4	27,0	100,0	152
	Unibertsitatea	30,3	27,3	19,7	22,7	100,0	66
Filmin	Guztira	46,1	15,7	20,4	17,8	100,0	191
	BH	41,2	12,3	21,9	24,6	100,0	114
	Unibertsitatea	53,2	20,8	18,2	7,8	100,0	77
Sky	Guztira	35,7	26,4	20,9	17,1	100,0	129
	BH	40,0	18,8	20,0	21,3	100,0	80
	Unibertsitatea	28,6	38,8	22,4	10,2	100,0	49
beIn Connect	Guztira	35,4	21,5	17,7	25,3	100,0	79
	BH	33,3	22,2	18,1	26,4	100,0	72
	Unibertsitatea	57,1	14,3	14,3	14,3	100,0	7

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Plataforma horien erabilera egunerokotasunean nahiko txertatuta dago: panelkideen erdiek baino gehiagok (% 50,3) astean 2-5 aldiz edo maizago erabiltzen ditu. Unibertsitateko ikasleek zertxobait maiztasun handiagoa adierazten duten BHkoek baino.

64. Irudia - Zenbatero erabiltzen dituzu streaming plataforma horiek?

Zenbatero erabiltzen dituzu streaming plataforma horiek?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Inoiz ez	10,8	13,6	8,7
Hilabetean behin	11,0	10,7	11,3
Astean behin	13,9	13,6	14,2
Astean birritan	14,0	13,1	14,6
Astean 2-5 aldiz	26,7	24,5	28,5
Egunero	18,7	18,7	18,6
Egunean behin baino gehiagotan	4,9	5,8	4,2
Guztira (n eta %)	100,0 3.027	100,0 1.340	100,0 1.687

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Streaming plataformetako edukiak, audioak, normalean, gaztelaniaz ikusten dira. Joera hori bereziki nabarmenagoa da BHko ikasleen kasuan, hamarretik zortzik baino gehiagok hizkuntza hau erabiltzen duela baitio (% 84,2k). Unibertsitateko ikasleen kasuan, gaztelaniak jarraitzen du hizkuntza nagusia izaten, baina laurdenak baino gehiagok ingelesa aukeratzen du (% 28,2k, eta BHkoen kasuan % 9,9k). Euskararen presentzia oso txikia da (% 0,3).

65. Irudia - Normalean, ze hizkuntzatan ikusten dituzu streaming plataformetako edukiak? (audioaren hizkuntza)

Normalean, ze hizkuntzatan ikusten dituzu streaming plataformetako edukiak? (audioaren hizkuntza)

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Gaztelania	74,4	84,2	67,1
Ingelesa	20,3	9,9	28,2
Euskara	0,3	0,4	0,2
Frantsesa	0,2	0,3	0,1
Beste bat	4,8	5,1	4,5
Guztira (n eta %)	100,0 2.685	100,0 1.151	100,0 1.534

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Azpidatzen kasuan ere joera oso antzekoa da. Ikasleen hamarretik seik (% 59,4) ez zuten azpidatzerik erabili, eta erabili zituen bostenak gaztelaniaz (% 19,6) edo ingelesez (% 18,6) erabili zituen. Ingeleraren hautuak bereziki indarra hartzen du Unibertsitateko panelaren kasuan: % 24,6k ingelezko azpidatzerik erabili ditu, BHkoen % 10,6ren aurrean.

66. Irudia - Eta erabiltzen al duzu azpidatzi edo subtitulurik? Ze hizkuntzatan?

Eta erabiltzen al duzu azpidatzi edo subtitulurik? Ze hizkuntzatan?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Gaztelania	19,6	17,5	21,2
Ingelesa	18,6	10,6	24,6
Euskara	0,4	0,8	0,2
Frantsesa	0,3	0,4	0,2
Ez dut azpidatzerik erabiltzen	59,4	68,4	52,7
Beste bat	1,6	2,4	1,1
Guztira (n eta %)	100,0 2.676	100,0 1.144	100,0 1.532

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



PLATAFORMA DIGITAL, VIDEO ON DEMAND EDO ORDAINPEKO ALA DOANEKO STREAMING PLATAFORMETAN IKUSITAKO AZKEN EDUKIA

Streaming plataformen inguruko atala amaitzeko, hauetan ikusitako azken edukiaren inguruko galdera batzuk egin dira: zein plataformetan ikusi den, zein aparailurekin eta zein hizkuntzetan (audioa eta azpidatziak).


Plataformari dagokionez, nagusia zalantzarik gabe Netflix izan da: % 54,1ek bertan ikusi baitu azken edukia. Bigarren lekuan, distantzia handira, Amazon Prime Video dago: panelkide guztien % 13,5ek hautatu du. Lehen bi plataforma horietan ez dago desberdintasun handirik BH eta Unibertsitatearen artean, baina hirugarren postuan gelditzen den plataforma aldatu egiten da: Unibertsitateko panelkideen kasuan, Dazn da (% 9,5ek aukeratua) eta BHkoen kasuan Disney + (% 5,5ek aukeratua). Azkenik, zerrendan jasota ez dagoen beste plataformaren bat gehiago aipatzen dute BHko panelistek (% 9,3) Unibertsitatekoek baino (% 6,0).

67. Irudia - Ikusi duzun azken eduki hori zein plataformetan zegoen?

Ikusi duzun azken eduki hori zein plataformetan zegoen?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Netflix	54,1	56,0	52,6
Amazon Prime Video	13,5	12,9	14,0
Dazn	6,5	2,5	9,5
HBO	5,9	4,1	7,2
Movistar+	3,8	4,5	3,3
beIn Connect	2,7	0,3	4,4
Disney+	2,5	5,5	0,3
Euskaltel	1,4	2,2	0,8
Anime FLV	0,9	1,9	0,2
Rakuten TV	0,7	0,3	1,1
Filmin	0,5	0,4	0,6
Besteren bat	7,4	9,3	6,0
Guztira (n eta %)	100,0 2.682	100,0 1.149	100,0 1.533

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Azken eduki hori, oro har, bi aparailutatik ikusi da: Internetera konektatutako telebista (kasuen % 48,0n) eta ordenagailu eramangarria (kasuen 22,1en); hirugarren lekuan, nahiko urruti, telefono mugikorra aipatu dute panelkideen % 13,4k. Bi aukera nagusien artean, desberdin jokatzen dute BHko eta Unibertsitateko panelistek: lehenengo kasuan, Internetera konektatutako telebistak bereziki pisu handia hartzen du (% 58,7k ikusi dute aparailu honen bidez), eta, aldiz, Unibertsitateko ikasleen artean parekoago gelditzen dira ordenagailu eramangarria eta Internetera konektatutako telebista; (% 30,5 eta % 40,0 hurrenez hurren).

68. Irudia - Streaming bidez ikusitako azken pelikula, serie ala dokumental hori zein aparailu bidez ikusi zenuen?

Streaming bidez ikusitako azken pelikula, serie ala dokumental hori zein aparailu bidez ikusi zenuen?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Internetera konektatutako telebista (Smart TV)	48,0	58,7	40,0
Ordenagailu eramangarria	22,1	10,8	30,5
Mugikorra	13,4	14,3	12,8
Tableta	8,4	8,1	8,6
Mahaiko ordenagailua	5,7	4,7	6,5
Bideo-kontsola	0,6	1,0	0,3
Bestelakorik	1,8	2,4	1,3
Guztira (n eta %)	100,0 2.671	100,0 1.138	100,0 1.533

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Streaming plataformak erabiltzea zenbat gustatzen zaien galdetuta, ikasleek eman dioten batez besteko balorazioa 7,8koa izan da 0 eta 10 arteko eskala batean.

69. Irudia - Asko gustatzen zaizu streaming plataformak erabiltzea? 0-10eko eskalan?

Askok gustatzen zaizu streaming plataformak erabiltzea? 0-10eko eskalan?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
10	17,5	23,8	12,8
9	19,0	19,3	18,7
8	28,8	22,2	33,6
7	17,7	15,2	19,5
6	6,4	6,9	6,0
5	6,7	7,7	6,0
4	0,9	1,2	0,7
3	1,2	1,1	1,2
2	1,0	1,1	1,0
1	0,8	1,2	0,5
0	0,2	0,4	0,1
Guztira (n eta %)	100,0 2.640	100,0 1.118	100,0 1.522
Batezbestekoa	7,8	7,9	7,8

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



MUSIKA, IRRATIA ETA PODCASTAK

Atal honetan musika, irratia eta Podcastak entzuteko ohiturari buruzko datu batzuk aztertuko dira.

MUSIKA ETA IRRATIA


Musika entzuteko ingurune ohikoena etxea da inkestatutako panelkideentzat (% 49,5entzat). BHkoen artean, etxearen pisua askoz handiagoa da Unibertsitatekoen artean baino (% 65,2 eta % 37,6 dira hurrenez hurren), eta bigarren hauen artean garraio publikoa aukeratu du herenak (% 34,2). Hirugarren lekuan, % 12,5ek dio gehienbat kalean entzuten duela musika, eta % 9,0k kotxean.

70. Irudia - Musika non entzuten duzu gehienbat?

Musika non entzuten duzu gehienbat?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Etxean (zure etxean ala beste batenean)	49,5	65,2	37,6
Garraio publikoan	21,8	5,3	34,2
Kalean	12,5	11,0	13,6
Kotxean	9,0	9,2	8,8
Kafetegian/Tabernan/Diskotekan	0,4	0,3	0,5
Beste leku batean	5,1	6,0	4,4
Ez dut muskarik entzuten	1,8	3,0	0,9
Guztira (n eta %)	100,0 3.103	100,0 1.336	100,0 1.767

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Musika entzuteko aparailu nagusia, zalantzarik gabe, mugikorra da: panelkideen % 83,6k hala adierazi du. Unibertsitateko ikasleen artean zertxobait nabarmenagoa da joera hori, % 87,6ren kasuan baita aparatu nagusia. BHko ikasleen kasuan, ia panelkideen laurdena beste aukeren artean banatzen da: % 8,6k ordenagailua erabiltzen du, % 6,2k aukeran jarri diren beste aparatuak aukeratu ditu (irratia, tableta edo telebista), eta % 3,7 bestelako aukeraren baten kokatu da.

71. Irudia - Zein aparatu erabiltzen duzu musika entzuteko

Zein aparatu erabiltzen duzu musika entzuteko?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Mugikorra	83,6	78,2	87,6
Ordenagailua	7,6	8,6	6,7
Irrati aparatua (etxekoa edo kotxekoa)	2,6	2,6	2,7
Tableta	1,7	2,7	1,0
Telebista	0,5	0,9	0,1
Beste aparatu batean	2,2	3,7	1,0
Ez dut musika entzuten	1,9	3,3	0,8
Guztira (n eta %)	100,0 3.097	100,0 1.333	100,0 1.764

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Interneten musika entzuteko erabiltzen diren programa, aplikazio eta plataformei buruz galdetu da, bat baino gehiago hautatzeko aukerarekin. Gehien erabiltzen den plataforma, nabarmen, Spotify da: panelkideen % 83,2k erabiltzen du, Unibertsitateko ikasleen % 87,4k eta BHkoen % 77,6k. Bigarren lekuan, Youtube agertzen da: panelkideen erdiak erabiltzen du gutxi gorabehera. Bestelako plataformak (SoundCloud, iTunes, Deezer, Badok, BandCamp edo Facebook) % 3k edo gutxiagok aipatzen ditu. Musika internet bidez entzuteko erabiltzen diren plataformen kasuan, ez da desberdintasun handirik nabaritzen BHko eta Unibertsitateko ikasleen artean.

72. Irudia - Interneten entzuten baduzu musika, zein programa, aplikazio ala plataforma erabiltzen duzu? (Aukera anitza)

Interneten entzuten baduzu musika, zein programa, aplikazio ala plataforma erabiltzen duzu? (Aukera anitza)

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Spotify	83,2	77,6	87,4
Youtube	49,0	51,7	46,9
SoundCloud	3,1	2,8	3,3
iTunes	1,5	1,7	1,4
Deezer	0,6	0,7	0,6
BandCamp	0,3	0,1	0,3
Badok	0,2	0,1	0,2
Beste	4,7	6,9	3,1
Ez dut musikarik entzuten Internet bidez	2,4	3,1	1,9
Oinarria (n eta %)	100,0 3.105	100,0 1.340	100,0 1.765

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Musika entzuteko, panelkideen % 40,0k Los40 emisora erabiltzen du, Unibertsitateko ikasleen artean gehiagok erabiltzen dute BHko ikasleek baino (% 44,3k eta % 34,6k hurrenez hurren). Bigarren lekuan, Gaztea dator, ikasleen bostenak aipatuta (% 21,0k), hau ere bereziki Unibertsitateko ikasleen artean ehuneko altuagoarekin (% 27,2). Hirugarren lekuan Cadena 100 dator, % 20,3k aipatuta, eta laugarren lekuan Europa FM, % 10,7k aipatuta. Bestetik, erantzuleen % 34,1ek dio ez duela musika entzuten irratitik, Unibertsitateko ikasleen % 32,2k eta BHko ikasleen artean are eta gehiagok, % 36,4k.

73. Irudia - Irratian musika entzuteko emisora (Aukera anitza)

Irratian musika entzuteko emisora (Aukera anitza)

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Los40	40,0	34,6	44,3
Gaztea	21,0	13,1	27,2
Cadena 100	20,3	20,8	20,0
Europa FM	10,7	8,9	12,2
Rock FM	7,2	6,3	7,9
Kiss FM	6,9	5,7	7,9
Cadena Dial	2,7	2,5	2,9
Euskadi Irratia	2,1	1,9	2,2
EiTB Musika	1,6	1,3	1,7
Cadena SER	0,6	0,8	0,5
Radio Euskadi	0,5	0,8	0,2
Euskal Kantak EiTB	0,4	0,3	0,5
M80	0,3	0,0	0,5
Beste	4,3	5,1	3,7
Ez dut musika entzuten irratitik	34,1	36,4	32,2
Guztira (n eta %)	100,0	100,0	100,0
	3.014	1.340	1.674

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Gehien entzuten diren musika generoak reggaetoi-a (% 50,8) eta popa (% 43,5) dira, hirugarren maila batean dator pop/rocka (% 34,3), eta laugarren mailan rapa eta trapa (% 21,6 eta % 16,5 hurrenez hurren). Panelaren arabera begiratuta datuak, popa eta pop/rocka gehiago entzuten dira Unibertsitateko erantzuleen artean BHkoen artean baino (bien artean % 95,9 eta % 54,1). BHkoen kasuan, Unibertsitatekoek baino gehiago entzuten dute trapa (% 19,3 eta % 14,4 hurrenez hurren).

74. Irudia - Zein musika entzuten duzu gehien? (Aukera anitza)

Zein musika entzuten duzu gehien? Generoak (Aukera anitza)

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Reggaetoi-a	50,8	49,1	52,2
Pop-a	43,5	31,3	52,8
Pop/rock-a	34,3	22,8	43,1
Rap-a	21,6	21,6	21,6
Trap-a	16,5	19,3	14,4
Elektronikoa	11,5	11,3	11,6
Hip hop-a	8,6	8,0	9,1
Soinu latinoak (salsa, kumbia, batxata...)	7,0	9,2	5,3
Heavy metal-a	4,9	4,2	5,4
Musika klasikoa	4,2	3,6	4,7
R&B-a	3,3	1,6	4,6
Kpop-a	3,0	2,8	3,2
Jazz-a	2,1	1,4	2,6
Blues-a	1,1	0,6	1,5
Beste	13,3	16,0	11,3
Ez dut musikarik entzuten	2,3	3,6	1,4
Oinarria (n eta %)	100,0 3.098	100,0 1.340	100,0 1.758

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



PODCASTAK


Podcasten kontsumoari buruzko datu batzuk ere jaso dira inkestan. Panelkideen erdia inguruk Podcastak entzuteko nolabaiteko ohitura du (% 14,2k askotan edo batzuetan entzuten ditu eta % 35,5ek noizean behin). Unibertsitateko ikasleen artean, ohitura handiagoa dagoela dirudi: inoiz Podcasttik entzuten ez dutenak % 40,1 dira, eta BHko ikasleen artean, aldiz, % 63,8 (hemendik aurrerako galderak ez dituzte erantzun inoiz Podcasttik entzun ez duten pertsona horiek).

75. Irudia - Dakizenez, Podcastak dira irratiko programa ala berez egindako beste audio grabazioak, nahi duzunean entzun ahal dituzunak. Entzuten dituzu Podcastak? Zenbatero?

Dakizenez, PODCASTak dira irratiko programak ala berez egindako beste audio grabazioak, nahi duzunean entzun ahal dituzunak. Entzuten dituzu Podcastak, zenbatero?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Ez ditut inoiz entzuten podcastak	50,3	63,8	40,1
Noizean behin	35,5	28,1	41,1
Nahikotan entzuten ditut	8,0	4,9	10,3
Askotan	6,2	3,2	8,5
Guztira (n eta %)	100,0 3.112	100,0 1.340	100,0 1.772

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Gehien interesatzen den gaia “elkarrizketak” dira, bereziki Unibertsitateko ikasleen artean (guztira, panelkideen % 40,6k aukeratu du erantzun hau, eta Unibertsitarien arteko % 45,9k). Bigarren lekuan “komedia, memeak eta parodiak daude, % 11,2k aukeratuta. Eta hirugarren lekuan “youtuberrak, gamerrak eta vlogerrak”, % 9,8k aukeratuta, eta horien kasuan BHko ikasleek interes handiagoa erakutsi dute (% 14,6k aukeratu du kategoria hau, Unibertsitateko ikasleen % 7,7rekin alderatuta). BHkoen artean arrakasta handiagoa duten beste bi kategoria “musika” eta “kirola” dira, hauen artean % 13,9k eta % 7,2k aukeratu baititu, eta Unibertsitateko ikasleen artean % 6,4k eta % 2,0k hurrenez hurren.

76. Irudia - Podcastak entzuterakoan, zein da zuretzat gairik gustukoena?

Podcas-tak entzuterakoan, zein da zuretzat gairik gustukoena?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Elkarrizketak	40,6	28,9	45,9
Komedia, memeak eta parodiak	11,2	10,3	11,5
Youtuberrak, gamerrak eta vlogerrak	9,8	14,6	7,7
Kirola	8,7	13,9	6,4
Albisteak eta politika	6,4	5,3	6,9
Musika	3,6	7,2	2,0
Makilajea eta moda	3,5	3,8	3,4
Audio fikzioa	1,2	1,1	1,3
Ariketa fisikoa (cardio, fitness, yoga...)	0,7	0,8	0,6
Beste bat	14,2	14,1	14,3
Guztira (n eta %)	100,0 1.524	100,0 474	100,0 1.050

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Gehien erabiltzen den gailua Podcastak entzuteko, nabarmen, telefono mugikorra da (% 74,6k aukeratua), eta bigarren lekuan ordenagailu eramangarria dator (% 12,0k esanda). BHko ikasleen artean, inkestatuak gehiago barreiatzen dira erantzun aukera guztien artean: Unibertsitatekoen kasuan ia hamarretik zortzik telefono mugikorra aukeratu du, eta, aldiz, BHkoen artean hamarretik zazpik.

77. Irudia - Zein da gehien erabiltzen duzun gailua Podcastak entzuteko?

Zein da gehien erabiltzen duzun gailua Podcastak entzuteko?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Telefono mugikorra	74,6	70,5	76,4
Ordenagailu eramangarria	12,0	9,8	12,9
Tableta	5,1	6,8	4,3
Mahaiko ordenagailua	4,8	4,7	4,8
Telebista pantaila	2,2	4,3	1,2
Bideo-kontsola	0,1	0,2	0,1
Bestelakoa	1,3	3,6	0,3
Guztira (n eta %)	100,0 1.523	100,0 468	100,0 1.055

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Podcastak zein neurritan diren gustuko galdetuta (0 eta 10 bitarteko eskala batean), guztira 6,8ko batezbestekoa lortzen dute. Unibertsitarioen artean altuagoa da batezbestekoa, 7,1ekoa hain justu BHko 6,3ren aldean.

78. Irudia - Podcastak entzuteko ohitura baduzu, esan noraino dituzun gustuko (0-10 eskala erabili)

Podcastak entzuteko ohitura baduzu, esan noraino dituzun gustuko (0-10 eskala erabili).

	Guztira	BH	Unibertsitatea
10	8,4	7,1	9,0
9	11,8	9,4	12,8
8	24,8	17,9	27,9
7	22,4	21,7	22,7
6	9,5	11,6	8,6
5	9,7	11,4	9,0
4	3,7	6,3	2,6
3	3,3	4,0	3,0
2	2,7	4,9	1,7
1	2,4	4,7	1,4
0	1,2	1,1	1,2
Guztira (n eta %)	100,0 1.469	100,0 448	100,0 1.021
Batezbestekoa	6,8	6,3	7,1

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



INFORMAZIOA ETA TELEBISTA


Orokorrean, informatuta egoteko sare sozialak erabiltzen dira iturri nagusi moduan. Hala adierazten dute panelkideen % 44,6k, eta Unibertsitatekoen artean ehunekoak are altuagoa da, % 52,0koa baita (BHko ikasleen artean, % 36,6 dira). BHko ikasleek, aldiz, gehiago erabiltzen dute telebista tradizionala: % 28,2k dio nagusiki bide horretatik informatzen dela, Unibertsitateko % 23,3ren aldean. Internet dator hirugarren lekuetan, % 8,5arekin. Azkenik, albisteak jarraitzen ez dituzten ikasleak % 14,9 dira eta hauen artean gehiago dira BHkoen artean (% 22,8) Unibertsitatekoen artean baino (% 7,5).

79. Irudia - Orokorrean, non ikusten, entzuten edo irakurtzen dituzu albisteak?

Orokorrean, non ikusten, entzuten edo irakurtzen dituzu albisteak?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Ez dut albisterik ikusten, entzuten edo irakurtzen	14,9	22,8	7,5
Sare sozialak (Instagram, Twitter, Facebook, Youtube...)	44,6	36,6	52,0
Telebista kanal normalak (ETB, Tele 5, La Sexta, telebista lokala...)	25,6	28,2	23,3
Internet (webguneak)	8,5	7,8	9,1
Irratia	1,7	1,6	1,7
Egunkariak (paperean eta webgunean)	3,4	1,8	4,8
Herriko egunkaria edo aldizkaria (paperean edo webgunean)	0,7	0,4	1,0
Bestelakoa (zehaztu mesedez)	0,7	0,7	0,6
Guztira (n eta %)	100,0 2.781	100,0 1.336	100,0 1.445

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Informatzeko erabiltzen dituzten bideen artean sare sozialak daudela adierazi du ikasleen hamarretik zortzik (% 79,7). Ehuneko hau altuagoa da Unibertsitateko ikasleen artean (% 85,7) BHkoen artean baino (% 73,2).

80. Irudia - Informatzeko erabiltzen dituzun medioen artean, sare sozialak ere badaude?

Informatzeko erabiltzen dituzun medioen artean sare sozialak ere badaude?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Bai	79,7	73,2	85,7
Ez	20,3	26,8	14,3
Guztira (n eta %)	100,0	100,0	100,0
	2.791	1.340	1.451

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



SARE SOZIALETATIK INFORMATZEA


Gehien erabiltzen den informatzeko bidearen inguruan sakonago galdetu da, hain justu, sare sozialen inguruan. Informatzerako orduan gehien erabiltzen den sare soziala Instagram da (% 37,0k hala dio), bigarren lekuan Twitter (% 25,5) eta hirugarrenean TikTok (% 19,3). Joera desberdinak daude BHko ikasleen eta Unibertsitatekoen artean: lehenengoek bereziki Instagram eta TikTok aipatzen dituzte (% 38,9rentzat Instagram da informatzeko gehien erabiltzen duten sare soziala eta % 27,7rentzat TikTok), aldiz, Unibertsitateko ikasleen artean, iturri nagusia Twitter da, beren arteko % 38,7k bera aukeratzen baitu, eta % 35,5ek Instagram.

81. Irudia - Aurreko galderan sare sozialak aukeratu dituzunez, zein da informatzeko gehien erabiltzen duzun sare soziala?

Aurreko galderan sare sozialak aukeratu dituzunez, zein da informatzeko gehien erabiltzen duzun sare soziala:

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Instagram	37,0	38,9	35,5
Twitter	25,5	8,8	38,7
TikTok	19,3	27,7	12,8
Youtube	7,2	8,4	6,3
WhatsApp	6,8	10,4	4,0
Facebook	1,2	1,4	1,1
Telegram	0,8	1,1	0,6
Twitch	0,4	0,6	0,2
Snapchat	0,1	0,2	0,1
Beste bat	1,5	2,4	0,8
Guztira (n eta %)	100,0 2.197	100,0 967	100,0 1.230

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Sare sozialetan informatzen diren ikasleei galdetu zaie zein eduki erabiltzen duten gehiago (erantzun anitzeko galdera izan da). Ikasleen erdiak baino gehiagok erabiltzen dituzte komunikabide nagusiek sare sozialetan zabaltzen dituzten edukiak (% 2,6), bereziki ehunekoa altua izanik Unibertsitateko ikasleen artean (% 63,1). Bestetik, sare sozialetako erabiltzaileek sortutako edukiak % 46,0k erabiltzen ditu eta youtuber, instagramer edota TikTok erren edukiak % 40,6k bereziki BHko ikasleen artean (% 49,0). Laugarren postuan dago norberaren lagunek komunikabideetatik hartu eta partekatzen dituzten edukiak (% 36,5).

82. Irudia - Sare sozialetan informatzen zarela esan duzu, hauetariko zein eduki erabiltzen dituzu gehiago? Aukera HIRU nagusienak.

Sare sozialetan informatzen zarela esan duzu, hauetariko zein eduki erabiltzen dituzu gehiago? Aukeratu HIRU nagusienak...

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Komunikabide nagusiek sare sozialetan zabaltzen dituzten edukiak (adibidez: EITB, Telecinco, El Correo, El País, New Yo	52,6	39,2	63,1
Sareko erabiltzaileek sortutako edukiak (irritzi, meme, explainer, Twitter hari, eta abar)	46,0	34,1	55,4
Youtuber/Instagramer/TikTok er batzuen azalpenak (influencerrak)	40,6	49,0	34,0
Nire lagunek komunikabideetatik hartu eta partekatzen dituzten edukiak	36,5	35,4	37,4
Komunikabide txikiago edo alternatiboen edukiak (adibidez: Relevo, BuzzFeed, Código Nuevo, Vice, Pikara Magazine, Maldí	17,2	8,9	23,7
Bestelakoak	3,3	5,6	1,5
Guztira (n eta %)	100,0 2.197	100,0 967	100,0 1.230

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Sare sozialetan informazioa jasotzeko zein formatu gustatzen zaien galdetuta, ikasleen erdiak Story-ak ditu gustukoak (% 48,7), bereziki ehunekoa altua izanik BHko ikasleen artean (% 59,9). Bestetik, Twitterreko hariak aipatu ditu ikasleen laurdenak (% 27,5) eta Twitterreko txioak beste % 23,9k. Azken bi hauek bereziki Unibertsitateko ikasleen artean gehiago aipatu dira (% 40,3 eta % 32,5 hurrenez hurren). Laugarren lekuan 'pertsona batek kamerara begira egiten dituen bideo laburrak' agertzen dira (% 21,4) eta bosgarren lekuan irudien bidez kontaktzen diren albisteak (% 21,3).

83. Irudia - Sare sozialetan, informazioa jasotzeko, zer formatu da gehien gustatzen zaizuna? (HIRU gustukoak aukeratu ditzakezu)

Sare sozialetan, informazioa jasotzeko, zer formatu da gehien gustatzen zaizuna? (hiru gustukoak aukeratu ditzakezu)

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Storyak (TikTok /Instagram pildorak)	48,7	59,9	40,0
Twitter hariak (hainbat txio jarraian lotuta informazioa azaltzen dutenak)	27,5	11,3	40,3
Twitterreko txioak (tweet bakarreko informazioa)	23,9	12,8	32,5
Pertsona batek kamerara begira egiten dituen bideo laburrak	21,4	21,7	21,1
Irudien bidez kontaktzen diren albisteak	21,3	22,3	20,5
Azpituludun azalpen bideo laburrak	19,7	12,3	25,5
Podcastak	15,0	8,3	20,2
Testua bakarrik erabiltzen duen informazioa	14,3	10,1	17,6
Informazioa eskaintzen duten bideo luzeak	10,2	7,9	12,1
Bideo-podcastak	8,9	6,6	10,7
Infografiak	3,2	3,2	3,2
Bestelakoa	1,8	3,6	0,3
Guztira (n eta %)	100,0	100,0	100,0
	2.197	967	1.230

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



TELEBISTAKO ALBISTEGIAK


Ikasleen laurdenak ez ditu inoiz ikusten albistegiak telebistan (% 25,5). Ehuneko hori altuagoa da BHko ikasleen artean (% 30,2) Unibertsitatekoen artean baino (% 21,2). Bestalde, albistegiak telebistan egunero ikusten dituztenak ere gehiago dira BHkoen artean (% 16,3) Unibertsitatekoen artean baino (% 9,7).

84. Irudia - Zein maiztasunarekin ikusten dituzu ALBISTEGIAK TELEBISTAN?

Zein maiztasunarekin ikusten dituzu ALBISTEGIAK TELEBISTAN?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Inoiz ez	25,5	30,2	21,2
Astean behin	26,4	24,1	28,6
Astean birritan	17,4	14,7	20,0
Astean 3-5 aldiz	17,7	14,6	20,5
Egunero	12,9	16,3	9,7
Guztira (n eta %)	100,0 2.791	100,0 1.340	100,0 1.451

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Albistegiak ikusteko zein telebista kanal erabiltzen diren zehazki galdetu da. ETB2 eta ETB1 izan dira aukeratuenak (% 21,7k eta % 18,8k adierazita), eta segidan LA1 eta TELE5 gelditu dira (% 17,8k eta % 14,4k aukeratuta). Unibertsitarioen kasuan, ETB2 aukeratzeko joera handiagoa da (% 28,6).

85. Irudia - Albistegiak ikusten badituzu TELEBISTAN, zein da informatzeko gustukoena duzun kanala?

Albistegiak ikusten badituzu TELEBISTAN, zein da informatzeko gustukoena duzun kanala?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
ETB2	21,7	14,4	28,6
ETB1	18,8	19,1	18,4
LA1	17,8	18,3	17,4
TELE5	14,4	15,5	13,4
ANTENA3	10,5	10,7	10,3
LASEXTA	7,0	8,6	5,4
CUATRO	2,5	2,4	2,6
FDF	1,6	2,5	0,6
ETB3	1,0	0,8	1,2
#0	0,9	1,4	0,3
LA2	0,5	0,8	0,3
DIVINITY	0,5	1,0	0,1
Beste bat (Zehaztu)	2,8	4,5	1,2
Guztira (n eta %)	100,0 1.870	100,0 909	100,0 961

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Albistegien sinesgarritasuna neurtze aldera, 0 eta 10 bitarteko eskalan, 6,8ko puntuazioa ematen diete gustukoaren duten kanaleko albistegiei. BHko ikasleen artean puntuazioa baxuagoa da Unibertsitatekoen kasuan baino: 6,4 ematen diote lehenengoek eta 7,1 bigarrenek.

86. Irudia - Aurreko galderan gehien ikusten duzun albistegia aipatu duzu. Orain, esan mesedez, 0-10erako eskalan zenbateraino iruditzen zaizkizun sinesgarri bertako albistegiak. (0 - ez sinesgarria; 10 - oso sinesgarriak)

Aurreko galderan gehien ikusten duzun albistegia aipatu duzu. Orain, esan mesedez, 0-10erako eskalan zenbateraino iruditzen zaizkizun sinesgarri bertako albistegiak. (0-ez sinesgarriak; 10-oso sinesgarriak)

	Guztira	BH	Unibertsitatea
10	7,2	8,0	6,5
9	12,5	9,6	15,1
8	22,1	17,3	26,6
7	19,6	16,4	22,7
6	13,3	14,9	11,7
5	14,4	19,4	9,8
4	3,6	4,7	2,6
3	2,9	3,7	2,1
2	1,7	2,0	1,5
1	1,6	2,1	1,0
0	1,1	1,9	0,4
Guztira (n eta %)	100,0 1.854	100,0 892	100,0 962
Batezbestekoa	6,8	6,4	7,1

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra



TELEBISTARI BURUZKO GALDERAK


Orokorrean, telebista zein maiztasunekin ikusten duten galdetuta, BHko ikasleek maizago ikusten dutela antzematen da. Hau da, BHkoen artean telebista egunero ikusten dutenak % 31,2 dira eta Unibertsitatekoen artean ehuneko hori % 16,0ra jaisten da.

87. Irudia - Zein maiztasunarekin ikusten duzu telebista

Zein maiztasunekin ikusten duzu telebista?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Inoiz ez	13,9	13,4	14,5
Astean behin	20,3	16,0	24,3
Astean birritan	19,0	16,9	20,9
Astean 3-5 aldiz	23,5	22,6	24,3
Egunero	23,3	31,2	16,0
Guztira (n eta %)	100,0 2.791	100,0 1.340	100,0 1.451

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Egunean telebistari zenbat denbora eskaintzen dioten galdetuta, oso antzeko banaketa ikusi daiteke BH eta Unibertsitateko ikasleen artean. Gehiago zabal bat 15 eta 60 minutu artean kokatzen da (% 56,4). Egunean ordubete baino gehiago ikusten dutenak ikasleen % 20,7 dira.

88. Irudia - Zenbat denbora dedikatzen diozu egunean telebista ikusteari?

Zenbat denbora dedikatzen diozu egunean telebista ikusteari?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Bat ere ez	4,6	5,2	3,9
0-15 minutu	18,2	17,1	19,2
15-30 minutu	27,8	28,7	26,9
30-60 minutu	28,8	29,1	28,6
60-90 minutu	11,9	12,1	11,6
90-120 minutu	5,0	4,7	5,4
120 baino gehiago	3,8	3,1	4,4
Guztira (n eta %)	100,0 2.344	100,0 1.153	100,0 1.191

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Gehien ikusten den telebista kanala FDF da (% 15,1) eta ehuneko bereziki altua da BHko ikasleen artean (% 19,2). Unibertsitateko ikasleen artean ETB2 eta TELE5 dira gehien ikusten direnak (% 21,6 eta % 15,0 hurrenez hurren).

89. Irudia - Zein telebista kanal da gehien ikusten duzuna?

Zein telebista kanal da gehien ikusten duzuna?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
FDF	15,1	19,2	11,4
ETB2	14,5	6,8	21,6
TELE5	12,0	8,9	15,0
ANTENA3	8,6	7,2	10,0
ETB1	8,6	7,6	9,5
LA1	7,5	6,5	8,5
LASEXTA	3,9	4,1	3,8
CUATRO	3,4	3,1	3,8
DIVINITY	2,5	2,8	2,1
#0	1,5	1,2	1,8
ETB3	0,9	1,3	0,6
LA2	0,8	0,8	0,7
Beste bat	20,5	30,4	11,4
Guztira (n eta %)	100,0 2.351	100,0 1.128	100,0 1.223

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Telebistan ikusten gehien gustatzen zaien edukiak entretenimenduari lotutakoak dira (% 31,5), bereziki Unibertsitateko ikasleen artean (% 40,6). Ondoren, bigarren lekuan daude fikziozko edukiak (% 27,3), bereziki altua BHko ikasleen artean (% 33,3). Hirugarren lekuan kirol emankizunak daude eta laugarrenean albistegiak.

90. Irudia - Zein da telebistan ikustea gehien gustatzen zaizun edukia?

Zein da telebistan ikustea gehien gustatzen zaizun edukia?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Entrenimendua (bideo barregarriak, realitiak, lehiaketak, txutxumutxuak...)	31,5	21,7	40,6
Fikziozkoak (pelikula luzeak, serieak, marrazki bizidunak, bestelako fikziozko edukiak)	27,3	33,3	21,7
Kirolak	17,5	23,5	12,0
Albistegiak	10,2	7,6	12,7
Aktualitateko erreportajeak ala dokumentalak	5,8	4,5	6,9
Dokumentalak orokorrean (historia, natura, zientzia, kultura...)	2,7	2,8	2,5
Musika saioak	2,1	2,2	2,0
Bestelakoak	2,9	4,4	1,5
Guztira (n eta %)	100,0 2.372	100,0 1.144	100,0 1.228

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Telebistan ikusten dituzten programen hamarretik bederatzi (% 90,4) gaztelaniaz kontsumitzen dira eta % 6,4 euskaraz.

91. Irudia - Zein da telebistan ikusten dituzun programetako hizkuntza nagusia?

Zein izaten da telebistan ikusten dituzun programetako hizkuntza nagusia?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Gaztelania	90,4	90,2	90,5
Euskara	6,4	5,9	6,9
Ingelesa	2,2	2,0	2,4
Frantsesa	0,2	0,3	0,0
Beste bat	0,8	1,6	0,2
Guztira (n eta %)	100,0 2.375	100,0 1.144	100,0 1.231

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




Ikasleen ia erdiak (% 45,9) ez du inoiz ikusten telebistako edukirik euskaraz (% 45,9). Ehuneko hau altuagoa da BHko ikasleen artean Unibertsitatekoen artean baino (% 50,6 eta % 41,5 hurrenez hurren).

92. Irudia - Zenbatetan ikusten dituzu telebista edukiak euskaraz?

Zenbatetan ikusten dituzu telebista edukiak euskaraz?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
Inoiz ez	45,9	50,6	41,5
Hilabetean behin	19,1	18,1	20,1
Astean behin	15,6	12,3	18,6
Astean birritan	9,4	9,1	9,7
Astean 3-5 aldiz	6,5	6,5	6,6
Egunero	3,4	3,5	3,4
Guztira (n eta %)	100,0 2.377	100,0 1.146	100,0 1.231

Iturria: Ikusiker, 2022-2023ko txosten orokorra




0 eta 10 bitarteko eskalan, 6,3ko puntuazioa ematen diote ikasleen telebistari. BHko ikasleen artean puntuazioa altuagoa da Unibertsitatekoen kasuan baino: 6,9 ematen diote lehenengoek eta 5,7 bigarrenak.

93. Irudia - Orokorrean, telebistari nolako nota jarriko zenioke?

Orokorrean, telebistari nolako nota jarriko zenioke?

	Guztira	BH	Unibertsitatea
10	6,3	11,7	1,2
9	6,3	10,3	2,6
8	15,5	19,0	12,3
7	20,9	20,1	21,8
6	17,8	15,1	20,3
5	18,3	14,5	21,9
4	4,7	2,7	6,6
3	4,4	2,6	6,0
2	3,1	2,2	4,0
1	2,0	1,4	2,6
0	0,6	0,5	0,6
Guztira (n eta %)	100,0 2.268	100,0 1.092	100,0 1.176
Batezbestekoa	6,3	6,9	5,7



4. LABURREAN

- 11-23 urte bitarteko gazteek osatzen dute Ikusiker Panela eta helburu modura dauka kontsumitzen dituzten ikus-entzunezkoetan eta erabiltzen dituzten aparailu eta online baliabideetan sakontzea. EAEko eta Nafarroako Bigarren Hezkuntzako eta Unibertsitateko 4.000tik gora ikaslek hartu dute parte 2022/2023 ikasturteko panelean.
- Ikasleak IKTen erabiltzaile handiak dira. Ikus-entzunezko ugari kontsumitzen dituzte eta sare sozialetako erabiltzaile aktiboak dira. Bi jarduera horiek egiteko eskura dituzten euskarri dagokienez, ia guztiek daukate telefono mugikorra (% 98,0), hamarretik bederatzik ordenagailu eramangarria (% 91,8k) eta Internetera konektatutako telebista hamarretik zortzik (% 83,7k); horietatik, Unibertsitateko ikasleek ordenagailu eramangarria proportzio handiagoan dute Bigarren Hezkuntzakoek baino (lehenengoen % 96,2k du eta bigarrenengoen % 83,3k), eta Internetera konektatutako telebistan alderantzizkoa da egoera, Bigarren Hezkuntzako ikasleek gehiagotan dute eskura Unibertsitatekoek baino (% 85,3k eta % 82,9k hurrenez hurren).
- Ikasturtean zehar ikusi dituzten azken ikus-entzunezkoak, oro har, etxean ikusi dituzte, bai streaming plataformen bidez ikusi diren kasuan eta, are gehiago, telebista tradizionalen ere. Plataforma zehatzei dagokienez, Youtube, Instagram eta Netflix izan dira plataforma erabilienak, eta telebistako kanalen kasuan LA1, ETB2, TELE5 eta ANTENA3 dira aipatuena. Hizkuntzari dagokienez, gaztelania da nagusi bi kasuetan, baina streaming plataformen kasuan ingelesak pisu esanguratsua hartzen du (% 20aren bueltan). Telebista tradizionalen kontsumitzen diren edukien % 8 inguru euskaraz da, streaming plataformetan duen presentziaren bikoitza.
- Ikusiker paneleko kideak sare sozialen erabiltzaile oso aktiboak dira. Gehien erabiltzen dituzten bi sareak WhatsApp eta Instagram dira (ikasleen % 82,8 eta % 81,4ren kasuan daude hiru sare erabilienean artean), eta ondoren datoz TikTok eta Youtube (% 62,5 eta % 43,7 hurrenez hurren). TikTok ek indar handiagoa du BHko ikasleen artean eta WhatsApp eta Instagramek Unibertsitatekoen artean. Sare sozial bakoitzari erabilera eta funtzio desberdinak ematen zaizkio (Instagram denbora pasarako edota lagunekin konektatua egoteko, Youtube gustuko edukiak jasotzeko, Twitter informatua egoteko...), baina joera orokor batzuk ere antzematen dira: aparailurik erabiliena telefono mugikorra da sare sozial gehienetara sartzeko, eta, oro har, erabiltzailearen profila "ikusle" gisa ohikoagoa da eduki sortzaile aktiboarena baino. Bi panelen arteko desberdintasun batzuk ere badaude: Bigarren Hezkuntzako ikasleak TikTok en erabiltzaile handiagoak dira eta Unibertsitatekoak Twitterren gehiago ibiltzen dira.

- Orokorrean, sare sozialetan denbora gutxiago pasa nahiko luketen ikasleek ehuneko handia osatzen dute (denbora gehiago pasa nahiko luketene baino pisua handiagoa), eta bereziki gehiago dira Unibertsitateko ikasleen artean. Esaterako, Instagramen denbora gutxiago pasa nahiko luke ikasleen % 49,8k; Youtuben % 23,2k; TikTok en % 59,1ek eta Twitterren % 19,8.
- Euskararen pisua oso ahula da sare sozialetan, bereziki jasotzen den edukian (sortzen den edukian altuxeagoa da euskararen presentzia. Youtuben ikusten diren bideoen % 2,4 dira euskaraz eta Youtubeko eduki sortzaile diren ikasleen % 13,0k beti euskaraz sortzen du (bereziki Unibertsitatean). Bestetik, TikTok en ikusten diren bideoen % 0,7 euskaraz dira eta eduki sortzaileen % 1,1ek beti euskaraz sortzen du. Bukatzeko, Twitterren jasotzen diren edukien % 7,6 euskaraz izan ohi dira eta edukien sorrera % 3,6koa da euskaraz.
- Eskura gehien duten streaming plataforma Netflix da, nabarmen (% 77,3) eta ondoren datoz Amazon Prime Video (% 60,9), Disney+ (% 39,1), Movistar + (% 31,7) eta HBO (% 29,3). Oro har, plataforma horiek erabiltzeko argudio nagusiak plataformako edukiak gustuko izatea eta prezioa dira. Video on Demand zerbitzu hauek oso maiz erabiltzen dira, ikasleen erdiek astean 2-5 aldiz edo gehiago; eta erabilera-hizkuntzak gaztelania eta, neurri txikiagoan, ingelesa dira. Euskararen presentzia % 0,3koa da.
- Musika entzuten duten panelkideen artean (ikasleen % 98,2 entzuten du musika), normalean etxean (% 49,5), garraio publikoan, kalean edo kotxean entzuten dute. Genero gustukoak reggaetoia, popa eta pop-rocka, edo rapa eta trapa dira (Unibertsitatekoen artean pop eta pop/rock-ak indar handiagoa du). Mugikorra da zalantzarik gabe aparailu nagusia musika entzuteko, eta plataformak Spotify edo Youtube. Irratien artean, Los 40 eta bigarren lekuan Gaztea dira entzunenak, eta atzetik agertzen dira Cadena 100 eta Europa FM. Podcastak panelkideen erdiek entzuten dituzte eta beste erdiek ez. Unibertsitarioen artean gehiagok entzuten dituzte, eta gai gustukoak elkarriketak dira.
- Informatzeko, bi bide nagusi ikusten dira: lehenengo eta behin, sare sozialak (% 44,6ren bide nagusia da honakoa) eta bigarren lekuan, telebista tradizionala (% 25,6k hautatua). Bigarren Hezkuntzako ikasleek telebista tradizionalaren aldera gehiago jotzen dute (% 28,2k hautatzen dute honakoa), eta Unibertsitateko ikasleen artean sare sozialek pisu handiagoa dute (% 52,0k aukeratu ditu). Sare sozialen artean, Unibertsitatekoek Twitter eta Instagram aipatzen dituzte eta Bigarren Hezkuntzakoek Instagram eta TikTok . Sare sozialetan informatzeko formatu gustukoena Storyak dira eta Unibertsitateko ikasleek Twitterreko hariak eta txioak ere aipatzen dituzte neurri handi batean.
- Telebistako albistegiak ikasleen hiru laurdenak ikusten ditu noizean behin eta % 12,9k egunero. Telebista kanaletan, ETB2, ETB1 eta LA1 aipatzen dituzte Unibertsitateko ikasleek eta ETB1, LA1 eta TELE5 BHkoek. Hala eta guztiz ere, ikasleei albistek ikustea baino gehiago gustatzen zaie bestelako edukiak kontsumitzea. Gehien aipatu direnak Unibertsitatekoen artean entretenimenduzko programak eta fikziozkoak izan dira eta BHkoen artean fikziozko programak eta kirol emankizunak.